

ULTRA ESKUINAREN
FENOMENOA ETA
ITURRIEN ANALISIA

MASTER AMAIERAKO LANA

NUP/UPNA

BIGARREN HEZKUNTZA IRAKASKUNTZA MASTERRA

EGILEA: DIEGO CELIGÜETA ZARCO

ZUZENDARIA: EMILIO MAJUELO eta ZURIÑE SAINZ

AURKIBIDEA

Laburpena	3
1) SARRERA	4
2) MARKO TEORIKOA	5
I. MARKO EPISTEMOLOGIKOA.....	5
<i>ITALIAKO FAXISMOAREN PROZESUA</i>	8
<i>ALEMANIAKO NAZISMOAREN PROZESUA</i>	14
<i>FAKTORE NAGUSIAK</i>	20
<i>EGUNGO EGOERA</i>	21
II. MARKO DIDAKTIKOA	29
III. MARKO KURRIKULARRA	36
IV. EBALUAZIO IRIZPIDEAK	36
<i>IKASKUNTZA ESTANDAR EBALUAGARRIAK</i>	38
3) PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	40
I. PROPOSAMENAREN HELBURUAK.....	42
II. SEKUENTZIAZIOA	44
III. EBALUAZIOA	46
4) ONDORIOAK	47
5) ERANSKINAK	49
BIBLIOGRAFIA	51

Laburpena

MAL honen bitartez, ikasleenganako gertukoa eta gaurkotua izan daitekeen gai bat lantzea da helburu nagusia. Horretarako, metodologia berritzaileak txertatzea garrantzitsua da. Egungo testuinguru historikoa kontua izanda, 20 eta 30. hamarkadetako faxismo eta nazismo klasikoen fenomenoak aztertzea litzateke proposamen honen funtsa (testuinguru historikoa). Iturri historikoak erabiliz, ikasleak ikertzailearen papera hartzen du prozesu horretan zehar pentsamendu historikoa eta pentsamendu kritikoa garatzen dituelarik. Iturri historikoen analisiarekin ikasleak rol pasiboaren papera alboratzen du parte hartze aktiboa eskuratuz. Hezkuntza eta irakaskuntza tradizionalak gainditzea eta historia gertuagoko ikasgaia bilakatzea ere posible bilaka daitezke. Hurrengo orrietan zehar honako guztia azaltzen saiatuko gara.

Hitz Gakoak: Iturrien analisia, pentsamendu historikoa, faxismoa/nazismoa, ultra eskuina, pentsamendu kritikoa, testuingurua, metodologia berriak.

Resumen

Una de las finalidades de este TFM es la de crear y generar una propuesta didáctica que pueda ser útil e interesante para el alumnado. Mediante el análisis de un tema tan actual como el fenómeno de la ultra derecha se puede acercar la historia de una forma más práctica, mostrar la utilidad de la historia al fin y al cabo. Para ello, es importante aplicar una metodología innovadora que supere el marco de la enseñanza tradicional. Tomando como punto de partida el contexto histórico actual, la finalidad sería analizar e investigar sobre el nazismo y el fascismo clásico de los años 20/30 (aprender e interiorizar la importancia del contexto histórico). Mediante el análisis de las fuentes históricas, el alumno obtiene el papel de investigador con lo que es él quien genera el conocimiento. Al mismo tiempo, el alumno genera pensamiento histórico y crítico. Por otro lado, uno de los objetivos sería superar la enseñanza tradicional y convertir la asignatura de historia un elemento más cercano y familiar para el alumnado. En las siguientes páginas intentaremos desgranar todos estos aspectos.

Palabras Clave: Análisis de las fuentes, pensamiento histórico, fascismo/nazismo, ultra derecha, pensamiento crítico, contexto histórico, metodología innovadora.

Abstract

One of the purposes of this MAL/TFM is that of creating and generating a didactic proposal that could be useful and interesting for the pupils. By means of the analysis of a topic as current as the phenomenon of the right ultra it is possible to bring over the most practical history of a form, to show the utility of the history after all. For it, it is important to apply an innovative methodology that overcomes the frame of the traditional education. Taking as a starting point the current historical context, the serious purpose to analyze and to investigate on the Nazism and the classic fascism of the years 20/30 (to learn and to internalize the importance of the historical context). By means of the analysis of the historical sources, the pupil obtains the investigator's role with what he is he who generates the knowledge. At the same time, the pupil generates historical and critical thought. On the other hand, one of the targets would be to overcome the traditional education and to turn the history subject a more nearby and familiar element for the pupils. On the following pages we will try to shell all these aspects.

Key words: Analysis of the sources, historical thought, fascism/Nazism, ultra right, critical thought, historical context, innovative methodology.

1) SARRERA

Lehenik eta behin, argi geratu behar da faktore ezberdinengatik ezin izan dudala praktikara eramane proposamen didaktiko hau masterreko praktiketan egon nintzen epealdi horretan. Ondorioz, ezin izan dut inolako informazio edo datu bilketarik gauzatu. Aldi berean, normala den bezala, ez da inolako atalik egongo emaitzen analisiaren inguruan hitz egingo duena. Horren orde, amaierako ondorio edo konklusio bat egongo da. Beraz, proposamen didaktiko hau guztiz hipotetikoa dela azpimarratu behar da.

Egun badirudi "indarrean" dagoen fenomeno ultra eskuina dela. "Indarrean" diodanean komunikabideek, alderdiek, politikoez, kazetariak zein gizarteko hainbat sektorek agian merezi duena baino interes handiagoa eskaintzen diotelako diot. Egia da azken hamarkadetan eskuin muturreko alderdiek gorakada nabarmena izan dutela Europako herrialde ezberdinetan, baino arazoa dator zenbait elitek edo politikako sektoreek eskuin muturra aitzakia bezala erabiltzen dutenean gizarteko beste segmentu batzuk kriminalizatzeko. Ez hori bakarrik, krisi ekonomikotik sortutako alderdi eta mugimendu ezberdinei (ezkerrekoak zein eskuinekoak izan) legitimitatea kentzeko sistema bermatzen duten eliteek (alderdi tradizionalak, komunikabide nagusiak, banku eta enpresa nagusiak, erakunde europar eta nazional garrantzitsuenak, etab) nazismoarekin eta faxismoarekin alderatzen dituzte. Baina alderaketa hori termino berean gauzatzea posible al da?

Egun, mota honetako inolako fundamenturik ez duten alderaketak egiten direnez, mito edo baieztapen kategoriko hauek apurtzea gure eginbeharretako bat da. Historialariok zein

hezkuntza saileko aktore ezberdinek, ikasleei beharrezko baliabideak eskaini behar dizkiogu horrelako baieztapenei aurre egiten ikasteko. Gustatu ala ez, telebistan edo interneten agertzen diren edukiek eragin handia dute egungo gizartean eta nerabeak ez daude influentzia horretatik kanpo. Gure helburua irakasle eta historialari bezala ikasleei ulermenerako, pentsatzeko, iritzi propioa garatzeko eta pentsamendu kritikoa sustatzeko baliabide egokiak helaraztea da. Esan bezala, historiaren helburuetako bat pentsamendu historikoa eta pentsamendu kritikoa garatzea da. Egun mantentzen den diskurtso ofiziala datu eta informazioarekin hautsi eta kontrastatu behar da. Aldi berean, proposamen honekin entzuten edo jasotzen duten diskurtso ofiziala zalantzan jartzera bultzatzea lortu nahi da; hau da, kritikoak izatera. Ikasleek kritikoak izaten ikasi behar dute baina aldi berean, euren argudioak sendotuko dituen informazioa eta iturriak erabili behar dituzte eta hauek erabiltzen ikasi ere.

Beraz, proposamen honen helburuen artean, pentsamendu historiko eta kritikoa bultzatzen saiatzeaz gain, ikasleei baliagarriak suerta dakizkiokeen iturriak erabiltzen irakastea litzateke. Iturri idatziak horretarako baliabide ezin hobeak dira garaiko errealitatera gerturatzeko aukera eskaintzen dutela. Esandakoaz gain, pentsamendu historikoa barneratzean, oinarrizko kontzeptu historikoak eskuratzea posible da; hala nola, aldaketa eta jarraikortasuna bezalako kontzeptuak. Bestetik, metodologia berrien bitartez hezkuntza tradizionala eta ikasleen jarrera pasiboa alboratu nahi da. Ikaslearen paper aktiboa bilatzean ikertzailearen rola ematen zaio. Kasu honetan, “Interbentzio Pedagogiko Konplexua” deituriko metodoaz hitz egiten gabiltza, konkretuki Ikerketa Lanari buruz.

“La intervención pedagógica compleja es la propia del método innovador y exige gran preparación previa por parte del profesor. Esta intervención utiliza las fuentes en todas las fases del proceso instructivo y tiene por objetivo dotar de autonomía intelectual al alumno haciéndole ejercer de investigador.”¹

2) MARKO TEORIKOA

I. MARKO EPISTEMOLOGIKOA

Lan honetan zehar, gaur egungo testuingurua kontuan hartuta ultra eskuinaren fenomenoaren benetan faxismo klasikoa bezalako mugimenduekin ea aldera daitekeen ala ez aztertzea litzateke; hau da, benetan posible al da alderaketa bat egitea bi fenomeno hauen artean? Gaur egun, badirudi mugimendu hauen suspertze bat ematen ari dela edo komunikabideek behintzat hori saldu nahi gaituztela alderdi hauei atentzio nabarmen bat emanez (kasuaren eta interesen arabera noski). Nola da posible 20 eta 30eko hamarkadetan Europan

¹ TRIBÓ TRAVERIA, G (2005). 159or

gertatutakoarekin berriro ere mugimendu hauen suspertze bat gertatzea? Oinarrian gauza berdina al dira egungo eskuin muturreko alderdiak eta faxismo eta nazismo klasikoak?

Lehenik eta behin, faxismoa, neofaxismoa, nazismoa eta ultra eskuinaren arteko ezberdintasunak zeintzuk diren aztertu behar dira. Izan ere, gaur egun oso ohikoa da muturreko eskuin alderdiei faxistak eta naziak deitzea 20. eta 30. hamarkadako faxismo italiarra eta nazismo alemanarekin alderatuz. Irratian, telebistan, zein mota ezberdinetako periodikoetan (paperezkoetan zein digitaletan) faxismoa, nazismoa eta antzeko terminoak erabiltzea oso barneratua dago editorialen edo katearen linea nagusiaren aurka doan edozein mugimendu, politika edo ekintzari legitimitatea kentzeko. Are nabarmenagoa da aldizkari digitaletako foroetan ikus daitezkeen “eztabaida” eta elkarrizketak aztertzerakoan. Foro hauek gizarte osoaren adierazle ez diren arren, gizartearen zati handi bategatik zenbateraino barneratua dauden termino hauen erabilera erakusten dute aldiz. Errealitatea horrenbeste desitxuratu da, eskuin hegaleko alderdiek ezkerreko alderdietako politikak edo diskurtsoak faxistatzat edo totalitariotzat jotzen dituztela erradikalegiak direla adierazteko eta modu horretan legitimitatea kentzeko. Adibidez, Espainiaren kasuan egoera hau oso nabarmena da.²

Argi dago 20. eta 30. hamarkadetako testuinguru historikoak ez duela egungoarekin zerikusirik. Kontuan hartzen badugu faxismoa gertakari eta testuinguru historiko espezifiko baten ondorioa dela, batez ere Europako gizartean Lehen Mundu Gerra bezalako gertakari batek izan zuen eragina zela eta, komunismo sobietarrak izan zuen hedapenak eta Europan zehar sumatzen zen egoera iraultzailea kontuan hartuta beste faktore batzuen artean, ezin daiteke egungo eskuin muturreko alderdiei faxista edo nazia deitu antzeko terminoetan.

Rodriguez Jimenezen aburuz, neofaxista terminoa ezin da inondik inora Fuerza Nueva (Espainian) eta Frente Nacional (Frantzia) bezalako ultra eskuineko alderdietan aplikatu:

*“La etiqueta de <<neofascismo>> es perfectamente aplicable al Movimiento Social Italiano fundado en 1946, y la de <<neonazismo>> al Partido Demócrata Alemán creado en 1964, pero de ninguna manera a partidos de extrema derecha como Fuerza Nueva (España) y Frente Nacional (Francia), aunque la influencia del fascismo, mayor o menor según los casos, se deje sentir en numerosas organizaciones”.*³

Testuinguru ezberdin baten aurrean egoterakoan eta eragileak ezberdinak izaterakoan, termino desegokien aurrean geundeke. Hala ere, horrek ez du esan nahi eskuin muturreko alderdi hauen zenbait elementu edo influentzia ezin dutenik garai bateko alderdi faxista edo nazien postulatuetatik etorri. Influentzia faxista horien adibideetako bat izatez, Frente

²²<http://www.periodistadigital.com/politica/partidos-politicos/2015/07/10/jose-antonio-primo-de-rivera-pablo-iglesias-falange-espanola-jons-podemos.shtml>

² http://www.lainformacion.com/no-nos-moveran/fascista-Pablo-Iglesias-apunta-maneras_0_964704964.html

³ RODRIGUEZ JIMENEZ, J (1998). 15or

Nazionalaren izen bera litzateke 30. hamarkadako zenbait eskuin muturreko alderdiek eta faxistek erabiltzen baitzuten.

Baina ezer baino lehen, jo dezagun Italian Faxismoa eta Alemanian Nazismoa boterera iristearen arrazoiak eta pausoak aztertzea. Erregimen hauen garrantzia boterera iritsi zirenean datza, baina nolakoa izan zen prozesu hori?

Lehen Mundu Gerrak Europa erabat aldatu zuen bai aspektu politiko, geografiko (nazioen egitura eta mapa europarra), sozial zein intelektualari dagokionean. Gatazka honetako ondorioen artean, orduko botere nagusia irudikatzen zuten zenbait monarkia europarren desagerpena aurkitzen da (Alemania, Errusia, Austria-Hungaria). Honetaz gain, potentzia galtzaileek munduan zehar izan zitzaizketen koloniak galtzea eragin zuen. Lehen Mundu Gerrak bestalde, beste ondorio esanguratsu bat ekarri zuen; Sobietar Batasuna izango zenaren hazia hain zuzen ere. 1917ko Errusiar Iraultzak Romanov Dinastiaren eta monarkiaren amaiera ekarri zuen. Hala ere, benetan Europako nondik norakoa izango zena erabakiko zuena aurreko sistema ordezkatu zuen sistema berriaren finkapenean datza. Proletalgoaren iraultzarekin eta errepublika sozialista baten aldarrikapenarekin, sistema ekonomiko, politiko eta sozial berri bat posible zela ikusi zen. Errusiar Iraultzak arrakasta izan zuela jakiteak, European zehar mugimendu iraultzaileak hedatuko zirenean eta ezkerrek boterea eskuratuko zuenaren beldurra areagotu zuen eliteen artean. Elementu hau oso esanguratsua da alderdi faxistak eta naziak boterea eskuratu zutela ulertzeko.

Italia lehenengo eszenatoki bezala hartuz, mugimendu faxistaren sorrera eta gorakada ulertzeko Mussoliniren pausoak aztertu behar dira. Mussolinik gaztetan sozialismoaren ideiekin egiten zuen bat, baina Italia Gerra Handian sartu zenez geroztik pixkanaka bere ideologia aldatzeari jo zion faxismoa izango zena sortu arte. Denis Mack Smith historialaria Mussoliniren biografo garrantzitsuenetarikoa dugu. Bere *Mussolini* obran, aldaketa ideologiko honen nondik norakoak azaltzen ditu. Mussoliniren *Popolo d Italia* periodikoa jatorrian sozialista izateko argitaratu zen arren, 1918rako bere mezua erabat aldatu zen.

*“El Popolo d Italia que se había lanzado originalmente como un periódico socialista, para 1918 había cambiado mucho el mensaje. Ahora condenaba el marxismo diciendo que era un “montón de ruinas” repleto de doctrinas obsoletas como la guerra de clases, el determinismo económico y la dictadura del proletariado”.*⁴

Aipu honetan ikusten den ideia oso garrantzitsua da bai faxismoak, frankismoak zein nazismoak beren ideologiaren edo diskurtsoen zati handi bat antikomunismoan osatu baitzuten. Faxismoa oso tresna arrakastatsua izan zen komunismoa eta sozialismoa gelditzeko eta garaiko eliteek aprobetxatu egin zuten. Are gehiago, kontuan izanda Lehen Mundu Gerra amaitu eta berehala European zehar Errusiaren antzera errepublika sozialista

⁴ MACK SMITH, D (1981). 54or

edo sobietarrak ezartzeko saiakerak egin zirela, faxismoak uholde horiek arrakastarekin gelditzea lortu zituela esan dezakegu.

Errepaso labur bat eginez, saiakera horien artean esanguratsuenetarikoa Bavariako Errepublika Sobietarraren aldarrikapena dugu 1918ko azaroaren 7an (nahiz eta ofizialki apirilaren 6an kontsideratua dagoen) liga Espartakistaren eskutik (Rosa de Luxenburgo, Karl Liebknecht). Iraupen laburrekoa izan zen 1919ko maiatzaren 3an deuseztatua izan baitzen. Beste saiakera batzuen artean Hungariakoa aurkitzen dugu Bela Kunen eskutik 1919ko martxoaren 21ean. Guztira bost hilabete iraun zituen abuztuaren 1era arte. Azken honekin oso lotua Eslovakiako Errepublika Sobietarraren saiakera egon zen Hungariako errepublikak inbaditu ondoren. Bi asteko iraupena besterik ez zuen izan ordea. Ikusten den bezala, saiakera guzti hauek oso iraupen laburra izan zuten. Arrazoi nagusia mugimendu edo errepublika horiekiko egon zen errepresio gogorra dugu agintean zeudenen eskutik.

Adibide nabarmenetarikoa Bavariako Errepublikarekin gertaturikoa izan zen. Matxinadak, grebak, iraultza eta errepublika bera deuseztatzearen erantzule nagusietako bat Friedrich Ebert izan zen. Ebert Weimarreko Errepublikako lehen presidentea izan zen, Alderdi Sozialdemokratakoa (SPD). Armadaren eta *Freikorps*-en (eskuin nazionalista eta antikomunismo sutsuko erakundea paramilitarrak) laguntzarekin, mugimendu iraultzailea deuseztatzea lortu zuen. Gainontzeko saiakerekin errepresio maila berdina eman zen eliteen eskutik. 1918ko amaieratik 1920ra bitartean mota honetako iraultzak etengabe errepikatu ziren.

Hau guztia dela eta, Errusiako Iraultzaren “hedapena” eta Europa osoan zehar “arnasten” zen sentrazio iraultzailearekin uler daiteke eliteek hori guztia eten nahi izatea sistema bermatu ahal izateko. Elite hauek faxismoan eta nazismoan aurkitu zuten tresnarik eraginkorrena, Mussolinirengan hain zuzen ere.

ITALIAKO FAXISMOAREN PROZESUA

Gerrak ekarritako inflazioa, biztanleriaren desesperazioa, Italiaren “umilazioa” (potentzia garailea izan arren emandako tratuagatik), etab aitzaki egokiak izan ziren Mussolinik bere diskurtsoak osatzerako orduan. Leku guztietatik hartzen zuen biztanleriaren gehiengora iristeko. Hala ere, pixkanaka bere egunkaria zein alderdia finantzatzen joango direnei bermea eman behar zien langileria eta herria alboratu gabe (biztanleriaren gehiengoa alegia):

“Al sentir que se estaba encaminando hacia un nuevo público, abiertamente trató de hacer el juego a las clases capitalistas, pero en forma privada sugirió a los socialistas que podría estar a su disposición si estaban dispuestos a apoyar un tipo de dictadura populista. La principal dificultad consistía en que tenía necesidad de los lemas anticapitalistas para capturar una más amplia base en las masas y en los soldados desmovilizados, pero necesitaba tener la reputación de ser un anti

*socialista en potencia a fin de dar seguridades a los ricos y obtener el apoyo financiero para su periódico”.*⁵

*“... y resultaba difícil tomar en serio esa mezcla de futuristas, anarquistas, comunistas, sindicalistas, republicanos, católicos, nacionalistas y liberales de diversos tipos”.*⁶

D. M. Smithek bere obran azaltzen duen bezala, faxismoaren elementu interesgarrienetarikoa bat eliteengandik (kapitalisten) zein herritarren (langileria, herri xumea) eskutik eskuratzen dutela boterea da. Goiko aipuak adierazten duena kontuan hartuz, bi taldeen arteko oreka bilatzea da gakoa mugimendu hauen arrakasta ulertzeko. Eliteek kapitala eta mugimendua ahazteko bideak ezartzen dituzte. Herriak aldiz presioa (momentuko aginteari), masa mobilizatu bat eta behar izanez gero bozka.

Herriaren behar hori, Mussoliniren lehenengo programa faxistan ikus dezakegu: nekazarietarako lurrak, industrietako administrazioetan langileen ordezkariak, lurren zein fabriken desjabetzea, soldata minimoaren ezarpena, senatuaren deuseztapena, emakumearentzako bozka eskubidea, eta abarren aldarrikapena⁷. Edozein sozialistak edo herritar xumek onartuko lituzkeen elementuak dira. Hala ere, denborarekin proposizio guzti hauek desagertzen joango ziren.

Adierazitakoaz gain, mugimendu faxisten arrakasta ulertzeko erakunde paramilitarren integrazioa aztertu behar dugu. Alemanian *Freikorps*-ak aurkitzen bagenituen, Italian *Arditi* gisa ezagutzen ziren. Oposizioa ikartzeko eta deuseztatzeako funtzioa zuten erakunde armatuak ziren. Mussolini ohartu zen erakunde paramilitarrek ezkerreko alderdietako jendea erasotzen bazuten eta ondorioz biktimak ezkertiarrek baziren, poliziak ez zuela apenas interbenitzen:

*“Tomó buena nota de que cuando las víctimas de la violencia en las calles pertenecían a la extrema izquierda la policía apenas si intervenía, si acaso lo hacía; igualmente, de que los socialistas, con todo y lo que hablaban de revolución, eran esencialmente pacifistas y que podrían ser fácilmente dominados por un reducido grupo de hombres dispuestos a hacer y recibir disparos”.*⁸

Kasu honetan ikus daiteke nola garaiko poliziak (agintariengandik gidatuak azken finean) ezkerreko biktimak alboratu egiten zituzten eskuindarrei edo mugimendu faxistei biolentziaren legitimitatea bermatuz. Puntu hau aurreko ideiarekin lotua agertzen da; hau da, ezkerreko mugimenduak deuseztatzearekin sistema kolokan jarriko lukeen iraultza sozialista bat ekiditearena.

⁵ MACK SMITH, D (1981). 56-57or

⁶ MACK SMITH, D (1981). 58or

⁷ MACK SMITH, D (1981). 59or

⁸ MACK SMITH, D (1981). 60or

Faxisten ekintza oldarkorrek autoritatearen aldetik jasotzen zuten erantzuna oso adierazgarria izan zen. 1919ko azaroan ospatutako hauteskundeetan faxistek ez zuten arrakastarik izan Mussoliniren saiakerak porrot egin zuelarik. Porrot honek ekintza oldarkor eta armatuak gauzatzera bideratu zuten azkenik atxilotua izan zelarik. Aldiz, hurrengo egunean aske geratu zen. Beste hainbat ekintza faxista ere erantzunik gabe geratu ziren. Autoritateen malgutasuna ekintza faxistak legitimatzeko orduan elementu garrantzitsua izango da 1922an Mussolini boterera iristeko:

“Al día siguiente se le puso en libertad por orden del gobierno. Esto era un signo ominoso: demostraba que las autoridades, con su actitud también pasiva hacia D Annunzio, se estaban confabulando deliberadamente con la ilegalidad, y su asombrosa renuncia para castigar las actividades fascistas ilegales sería en los dos años siguientes un factor muy importante para llevar a Mussolini al poder”.⁹

Esandakoaz gain, Italiako egoera iraultzailea adierazi behar da. 1919ko hauteskundeetan sozialistek garaipen garrantzitsua eskuratu zuten parlamentuaren eserlekuen gehiengoak hauen esku geratu zirelarik. Sozialisten garaipenak kontserbadoreak eta liberalak larritu zituen iraultza gerta zitekeelakoan. Aldi berean, Mussolini ohartu zen ezkerretik ez zuela arrakastarik lortuko geroz eta programa politiko eta egunkariko editorial eskuindarragoa aplikatuz. Editorial aldaketa honek eta eskuinera gerturatzeak finantzazioa erraztu zion. Hauteskunde hauetatik sortutako parlamentua oso ezegonkorra suertatu zen gizartean ere hainbat iraultza saiakera egon zirelarik (fabrikak okupatzea Turinen, etab).

“Los socialistas italianos eran más intransigentes, mas unidos y mas izquierdistas. El PSI destacaba de los partidos socialistas de la Europa occidental por negarse a apoyar la guerra. Incluso después de que Italia entrara en ella en mayo de 1915, el PSI voto contra los créditos de guerra... En septiembre de 1918, reafirmo su programa máximo de revolución socialista. Luego, los días 7-11 de diciembre, fortalecida por las revoluciones centroeuropeas del mes anterior, la directiva del PSI pidió la inmediata <institución de la república socialista y la dictadura del proletariado>... En contraste con el SPD, por tanto, el PSI nunca respaldó un programa reformista de estabilización parlamentaria.”¹⁰

1921erako egoera politikoa aldatu egin zen. Sozialisten artean gertaturiko zatiketak hauen posizioa ahuldu zuen naiz eta urte horretako hauteskundeetan indar nagusiena izaten jarraitu zuten. Aldi berean, aurreko urteetako iraultzaren edo komunisten “arriskua” ez zen horren nabarmena. Hala ere, Mussolinik iraultzaren beldurra erabiltzeari ekin zion liberalak eta kontserbadoreak bereganatzeko asmoarekin. Eskuinerantz egindako mugimendu horrek

⁹ MACK SMITH, D (1981). 63or

¹⁰ ELEY, G (2002). 173or

liberalekin koalizioan joatea bermatu zion. Modu horretan, 1921eko hauteskundeetan Alderdi Faxista parlamentuan sartu zen lehen aldiz.

Parlamentuan sartzea lehen urratsa besterik ez zen izan ordea. Faxismoa ezaugarritzen duen elementuetako bat parlamentarismoaren aurka egotea da. Lehenengo momentutik Mussolinik parlamentuaren aurka jo zuen hura deuseztatzeko asmoarekin. Parlamentuan ahalik eta presentziarik txikiena egiten zuen diskurtso batzuk kenduta. Izatez, faxisten ekintzarik gehienak parlamentutik kanpo gauzatu ziren *Squadra* deiturikoen bidez (*Squadrak Arditi* erakundeen oinordeko paramilitarrak ziren, denborarekin “Alkandora Beltzak” izango zirenak).

1921erako faxistek biolentzia benetako bermearekin erabiltzen zuten ezker alderdietako jendea erailtzera iritsiz. Gobernuak zein poliziak ez zieten kasu hauei atentzio gehiegirik ematen eta sozialistak ordurako erabat beldurtuta zeuden *Squadren* inpunitatearen aurrean:

“Apenas el nuevo parlamento había iniciado sus sesiones cuando los diputados fascistas, bajo su dirección personal, atacaron físicamente al diputado comunista Misiano y lo arrojaron afuera del edificio con el pretexto de haber sido un desertor durante la guerra; empuñaron sus revólveres en la Cámara y amenazaron con dar el mismo tratamiento a otros socialistas. Por asombroso que pueda parecer, el gobierno no procedió en forma alguna contra esa conducta;...”¹¹

Squadra hauen antolamendua izango da faxismoaren arrakastetako beste pilare bat. Alderdiak Italian zehar indarra hartzen zuen heinean, *Squadren* boterea ere hazi egiten zen, batez ere gazteriaren artean presentzia nabarmena eskuratuz (biolentziarako joera handiagoa ematen baita). Mussolinik berak adierazi zuen bere mugimenduaren arrakastarik handiena *Squadra* horien organizazio militarrek antolatzea izan zela. Denborarekin, Italia faxistako benetako erakunde militarra osatzera iritsi ziren “Alkandora Beltzen” bitartez. 1921erako benetako milizia nazionalak bezala jarduten zuten aginte sistema bat antolatu zelarik. Milizia hauek askotan atentatu edo ekintza oldarkor ezberdinak antolatzen zituzten etsaiei leporatzen zizkietenak. Modu horretan, segurtasun ezaren sententzia areagotu egiten zen biztanleriaren artean. Faxismoak gora egin ahal izateko segurtasun ezeko giroa sustatu behar zen. Aldi berean, lehen aipatu bezala, milizia paramilitar hauen ekintzak ezkerreko jendearengan gauzatzen zirenez eskuinaren begi ona eta finantzazioa areagotu zen:

*“El fascismo estaba prosperando en realidad no por su ideología sino sobre todo porque las expediciones punitivas intimidaban a la oposición socialista y atraían patrocinadores adinerados”.*¹²

¹¹ MACK SMITH, D (1981). 70or

¹² MACK SMITH, D (1981). 74or

Orain aipatutako aipuaren bitartez, faxismoaren arrakasta zein elementuk eragin zuten ikus daiteke. Alde batetik, erakunde paramilitarren ekintza oldarkorrek biztanleria, eta bereziki ezkerreko jendea, “apaltzera” eramán zuten (ezkerreko mugimendu eta ekintzen murrizketa). Aldi berean, ekintza hauek autoritatearen baimenarekin edo bermearekin egiten zirenez elitearen konplizitatea agertzen da. Azkenik, kontserbadore eta elite dirudunen finantzazioa erakartzea lortzen zuten. Modu honetan, erakunde armatuak (Squadrak), elitearen oniritzia (inpunitatea), kapitala (eliteen finantzazioa) eta oposizioaren deuseztapena ematen da.

Faxismoa boterera iristeko faktore ezberdinek hartu zutela parte ikusi dugu. Beste elementu nabarmen bat elitearen barruan egon ziren tirabirak izan ziren eta Mussolinik bere probetxurako erabili zituen. Behin baino gehiagotan adierazi dugu eliteari beldurrik handiena ematen ziona langile mugimendua eta iraultza sozialista bat gerta zitekeela zela. Naiz eta 1922rako aurreko urteetako ezkerreko errebindikazio, greba, ekintza iraultzaileak, etab Europa osoan zehar nabarmen murriztu ziren (gogora dezagun 1918 eta 1920 artean saiakera ugari egon zirela epe oso konbultsoak izanez), elite italiarrak sozialisten eta komunistenganako arriskuan sinesten zuten.

Agintean zeuden Liberal eta kontserbadoreak euren artean zatituak zeuden ez zirela fio liberalak liberalen artean eta alderantziz. Alderdi tradizionalen arteko tentsioak eta ezkerreko indarrekiko beldurrak elitea geroz eta indar eta presentzia handia zuen faxismora jo zuen *Status quo*a bere horretan mantentzeko helburuarekin. Izatez, liberalek gidatutako gobernuak ez zen gai ordena bermatzeko azkenik Alderdi Faxistaren *Squadrek* betetzen zutela autoritatearen eta gobernuaren papera. Urte berean egondako Greba Orokorraren saiakera xumea *Squadrek* biolentzia nabarmenarekin zapaldu zuten sozialistak eta komunistak are ahulduago utziaz. Faxistek garatutako politika antikomunista eta antisozialista sutsuak eta hauen emaitza eraginkorrek, liberalen eta kontserbadoreen interesa sustatu zuten. Faxismoa boterera iristeko gutxi falta zen ordurako:

“Facta, político insignificante, resultó elegido porque los demás liberales estaban demasiado celosos uno del otro para formar una fuerte coalición contra las fuerzas antidemocráticas de la izquierda y la derecha.”¹³

“... los socialistas hicieron un débil gesto para pedir que se declarara una huelga general como protesta por la falta de legalidad y de orden, y esto lo aprovechó Mussolini. Los fascistas inmediatamente se concentraron en romper las huelgas incrementando así muy considerablemente su valor ante los conservadores, y dando mayor experiencia a sus escuadras al trabajar juntas. Repentinamente, ya podía hacerse pasar no como un enemigo de la ley sino como su defensor.”¹⁴

¹³ MACK SMITH, D (1981). 75or

¹⁴ MACK SMITH, D (1981). 76-77or

“Muchos estaban tan asustados por lo que decían los socialistas como por la revolución, y estaban listos para acudir a Mussolini como a un mal menor: alguien que, si no tenía la respuesta, sería mejor que nada. Las clases medias aun no estaban preparadas para aceptar como socios de gobierno a sus inferiores en la escala social, y suponían que cualquier concesión a favor de la izquierda constituiría un paso hacia la revolución.”

15

Momenturo eliteengan ideia berdina errepikatzen zen; hau da, kosta hala kosta iraultza sozialista zapaldu beharra Errusian gertatutakoa ez errepikatzeko. Iraultza gelditzeko faxistak beharrezkoak baldin baziren, hauengana joko zen.

Mussolinik ordurako bazekien agintariek ez zutela esku hartuko ekintza oldarkorrek gelditzeko. Hurrengo pausua Italiako hiri ezberdinetan erreboltak eta eraikuntza nagusiak okupatzea izan zen milizien eskutik. Biolentzia maila horren handia izan zen, lehen aldiz gobernutik zenbait neurri hartzea erabaki zutelarik. Horretarako, Victor Manuel erregeari egoera lasaituko zuen Martzial Legea ezartzeko proposamena egin zitzaion. Erregeak ordea, gainontzeko botere politikoen antzera, Mussolinirengan ikuste zuten salbazioa. Erregimena bermatzeko, monarkiaren instituzioak bizirauteko eta ordena mantentzeko gai ikusten zuten bakarria Mussolini eta bere alderdi faxista ziren Facta liberalaren aktibitate faltaren aurrean.

Orain azalduko oso garrantzitsua da boterea eskuratzeko azken pausua orain ematen baita. Jada, elitearen goreneko instituzioek faxistengan bakarrik ikusten zuten erregimena mantentzeko esperantza. Komunismoari eta sozialismoari agintariek zioten behar baino gehiagoko beldurrak (ez baitzegoen iraultza batetarako benetako arriskua) beharrezkoa zuen bulkada eman zion faxismoari boterera iristeko. Izatez, klase gidariak horrenbesteko adostasuna erakutsi zuen, Mussolinirengan jarri zutela konfiantza berak hasitako erreboltak eta ekintza oldarkorrek deuseztatzeko.

Victor Manuelek beste politikari liberal batzuekin batera, kaos egoera horretatik ateratzeko eta sistema bere horretan mantentzeko asmoarekin, 1922ko urriaren 31ean Lehen Ministro izendatu zuten Mussolini. Momentu horretan Alderdi Faxistak 47 eserleku besterik ez zituen ganbaran, baina pixkanaka oposizioa bereganatzen joan zen. Bere aurretik lehen ministroak izan ziren liberal ugarik Mussoliniren politikari men egin zieten kontserbadore, nazionalista eta monarkikoekin batera. Aurka egiten zieten bakarrak komunistak eta sozialistak izaten ziren. Senatuan ere, botere guztiak bere gain uzteko erreformak aurrera atera ziren. Kontuan izan behar da senatuan oraindik eta errepresentazio faxista txikiagoa zegoela. Honek guztiak argi uzten du klase gidariak, talde pribilegiatuak eta monarkiak berak Faxismoa boterera eraman zutela pribilegioak eta *Status quo*a mantentzeko intentzioarekin. Iraultza sozialista batenganako beldurra horren handia zen elitearen artean, nahita edo nahigabe sistema parlamentarioaren amaierara eraman zutela Italia euren erabakiekin.

¹⁵ MACK SMITH, D (1981). 78or

“...sabía que estaba en el poder no como resultado de una revolución, sino de una serie de compromisos que tenía con el rey y con los representantes del anterior régimen liberal.”¹⁶

“Los fascistas constituían una muy pequeña minoría en la Cámara, pero inmediatamente los escaños que estaban cerca de ellos en el extremo derecho, hasta entonces casi desiertos, empezaron a ser ocupados y una abrumadora mayoría dio a Mussolini un voto de confianza más numeroso que el que cualquiera pudiera recordar. Solamente los socialistas y los comunistas se le opusieron. [...] Cinco anteriores primeros ministros liberales votaron con la mayoría: Giolitti, Salandra, Orlando, Bomomi y Facta.”¹⁷

ALEMANIAKO NAZISMOAREN PROZESUA

Ikusi dugu zein faktorek eraman zuten faxismoa bezalako fenomeno bat boterea eskuratzerara lehen aldiz Italia bezalako herrialde batean. Alemaniaren kasuan gauza bera errepikatzen ahal da nazien igoera ulertu ahal izateko?

Italiaren antzera, guztiaren hasiera ulertzeko Lehen Mundu Gerraren amaierara jo behar dugu. Alemaniak gerra galdu zuen potentzia guztien artean zigor gogorrenak ezarri zitzaizkiolarik. Zigor horien artean Alemaniak munduan zehar zituen koloniak galtzea, Poloniaren sorketarekin lurraldea murriztea, Prusiarekin banantzea, potentzia aliatuekiko ekonomikoki zorpean geratzea, etab aurkitzen ziren. Hala ere, garrantzitsuena Gerra Handia bukatzeaz zegoela sortu zen krisi politikoa izan zen Guillermo II.a Kaiserraren Inperioa eta sistema monarkikoa kolokan jartzen hasi zirelarik.

Behin baino gehiagotan aipatu da I Mundu Gerraren ondorio nagusietako bat 1917ko Errusiar Iraultza izan zela. Europa osoko langileriarengan eta ezkerreko indarrengan iraultza gauzatzea posible zenaren ideia hedatu zen eta Alemania hautagai egokia bilakatu zen Errusian bezalako iraultza bat martxan jartzeko. Ondorioz, Gerra Handira, porrotera eta hondamendira eraman zuen sistema politikoak 1918ko azaroan egin zuen eztanda. Urrian jada Kieleko Marinelen altxamenduekin gerraren eta Enperadorearen politiken aurkako lehen zantzuak eman ziren eta orduz geroztik altxamenduak eta matxinadak etengabeak izango ziren.

Sistema hein handi batean mantentzeko, Weimarreko Errepublika aldarrikatu zen lehenengo presidentzia Friedrich Ebertengan erori zela. SPD alderdia ikusi zuten sistema parlamentario errepublikar berri bat ezartzeko gai izango zen bakarra. Eliteek onartu egin zuten erreformak aurrera eramatea SPD eta Eberten eskutik bazekitelako Liga Espartakistako eta gainontzeko ezker mugimenduetako metodoak iraultzaileagoak izango zirela. Italian Faxisten esku utzi

¹⁶ MACK SMITH, D (1981). 87or

¹⁷ MACK SMITH, D (1981). 89or

zutena sistemak ahalik eta antzekoenean jarraitzeko eta benetako iraultza sozialista bat ez gertatzeko, Alemanian SPD alderdiaren esku geratu zen. Ebert izan zen kontrairaultzaren erantzulea Alemanian.¹⁸

Lehenago adierazi bezala, 1918ko urte bukaeran eta 1919ko lehenengo hilabeteetan zehar Bavarian Errepublika Sobietar bat aldarrikatu zen Munich izan zuelarik hiriburua. Errepublika honek ibilbide laburra izan zuen, baino azkeneko fasean errusiar boltxebikeen politika eta erreforma berdinak bideratzeari ekin zioten. Honek guztiak Berlingo agintarien atentzioa deitu zuen Iraultza Sobietarraren hedapen bat Alemanian eta Europa osoan zehar eman zitekeelakoan. Eberten agindupean, gobernuak armada bidali zuen bidean *Freikorps* talde paramilitarrak gehitu zitzaizkiolarik.

Iraultza guztiz suntsitua geratu zen eta Errepublika Sobietarra deuseztatua. Ebertek eta honen SPD-k iraultza suntsitu zuten burgesiaren eta klase gidarien sistema bermatuz Proletalgoaren Iraultza baten aurrean.¹⁹ Sozialdemokraten politikak eta ezkerreko errepresioa izan zen hein handi batean nazismoa porrotera eraman zuena lehenengo saiakeran. Italian 1922rako jada Mussolini Lehen Ministro izendatu bazuten, Alemanian Hitlerrekin ez zen gauza berdina gertatuko 1933ra arte.

Orokorrean, 1920ko hamarkada gorabehera handiko epealdia izan zen Alemanian. Lehenengo urteetan zehar gerra ordainei aurre egiten jarraitu behar zieten eta hori lortzeko, txanponaren etengabeko debaluate bati ekin zioten. 1921 eta 1923 artean Weimarreko Errepublikan hiperinflazio epealdia garatu zen ondorio nagusia txanponaren uztea izan zela truke unitate gisa. Txanponaren balioa horrenbeste debalatu zen oinarrienerako produktuak billete kantitate handi batekin erosi behar zituztela. Azkenean, Marko alemana inolako baliorik gabe geratu zen.

Egoera horren muturrekoa izan zen Estatu Batuak eta Ingalaterra gerra ordainetako zorra berriro negoziatzeko prest agertu zirela. Frantziaren eta Belgikaren jarrera ordea guztiz kontrakoa izan zen Alemaniako zenbait gune industrial eta Ruhreko arroa okupatzera iritsi zirelarik gerra ordainaren zorrekin jarraitzeko. Baina badirudi gerra ordainaren zatia Alemaniako defizit presupuestoaren heren bat bakarrik suposatu zutela urte horietan. Hala ere, Versailleseko tratatua eta gerra ordainaren zorra erabili zen zenbait sektoretatik Alemaniako krisia salatzen. Hitler bera izango dugu diskurtso horren adierazle handienetarikoa.

Alemaniak jasandako hiperinflazioa eta egoera ekonomiko gogorra Hitlerren NSDAP alderdiarengatik aprobetxatua izango zen. Izatez, 1920 eta 1923 artean eskuineko indar erradikalek hainbat ekintza eta altxamendu bideratu zituzten ekonomia aitzakia zelarik.

¹⁸ ELEY, G (2002). 169or

¹⁹ GISEVIUS, H (1996). 76or

Erakunde paramilitarrek estatuko ordena bermatzen zuten indarren kontra jo zuten urte hauetan zehar.²⁰

Erakunde paramilitar hauek eskuin muturreko nazionalistengatik osatuak zeuden Hitlerrek sortutako mugimendua bertan sartzeko zelararik. Eskuineko altxamendu horien artean, Kappeko Estatu Kolpea aurkitzen da 1920ko martxoan. Estatu Kolpe honi aurre egiteko, aldi berean Ruhreko Altxamendua gertatu zen ezkerreko erakunde eta alderdiengatik zeintzuen azken helburua boterearen lorpena izango zen.

Hala ere, garaiko estatu kolperik entzunena Hitlerrek 1923an gauzatu zuena izan zen. Urtebete lehenagoko Mussoliniren Erromarako martxa emulatu nahirik, Hitlerrek Municheko Putsch-a (estatu kolpea) antolatu zuen boterea indarrez eskuratzeko asmoarekin. Italian ez bezala, Nazien ekintzak ez zuten armadaren eta autoritateen laguntza eskuratu estatu kolpeak porrot eginez eta Hitler bera kartzelaratu izanez. Hitler kartzelaratu izan zen arren, kondenaturiko bost urte horietatik urtebetera ere ez zen iritsi. Italian ez bezala, Estatu kolpeak berak sinesgarritasuna eta indarra kendu zien eskuin muturreko nazionalista paramilitarrei. Honek guztiak Hitler NSDAP alderdia berrantolatzerara eramanez. Bestetik, adierazi behar da Eberten gobernuak izan zela berriro ere altxamendu eta estatu kolpe hauek guztiz deuseztatu zituen.

Ikusten dugu Italian ez bezala, Alemanian ez zirela naziak berehala iritsi boterera. Izatez, Estatu kolpeaz geroztiko urteetan Hitlerren alderdia biztanleriaren gutxiengo batengana besterik ez zen iristen. 1924 eta 1928 urteetako hauteskundeetan NSDAP alderdiak botoen %3a (907.242) eta %2,63a (810.127) eskuratu zituen hurrenez hurren.²¹ Naziak ez ziren gai izan biztanleriaren gehiengora iristeko hauteskundeetan portzentaje txikiak eskuratu zituztelarik. Ondorioz, urte horietan Hitlerrek alderdia berrantolatzeari ekin zion aldaketa nabarmenena liderraren irudiaren sendotzea izan zela. Italian Mussolinirekin gertatzen zen bezala, alderdia Hitler izango zen.

*“A confidential report by the Reich Minister of the Interior in 1927, pointing out that the NSDAP “was not advancing” realistically described a party as “a numerically insignificant radical -revolutionary splinter group incapable of exerting any noticeable influence on the great mass of the population and the course of political events”.”*²²

Naziek eskuratutako portzentaje txiki honek urte horietan egondako ekonomiaren eta ondorioz biztanleriaren bizi-baldintzen hobetzean egon daiteke. Izan ere, epe hau Weimarreko Errepublikaren “Urrezko Urteak” bezala ezagutzen da. Ian Kershawek bere *Hitler* obran azaltzen duen bezala, produkzio industrialak gerra aurretiko egoera gailentzera iritsi zen (1926ko ekonomiaren uzurtze txiki bat salbu). Ekonomiaren hobetzea produktu

²⁰ KERSHAW, I (1998). 212-213or

²¹ https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_parlamentarias_de_Alemania_de_diciembre_de_1924

²² KERSHAW, I (1998). 257or

ezberdinen kontsumoaren igoeran nabarmendu zen, batez ere “luxuzko” edo oinarrizkoak ez ziren produktuei dagokionean. Honetaz gain, kultura alemanaren goraldia ere eman zen:

“The first glimmers of a mass-consumer society were visible. More people had radios, telephones, even cars. Shopping was increasingly carried out in big department stores... These years also marked the high-point of Weimar culture, of neue Sachlichkeit (New Objectivity) and the thriving of an extraordinary cultural avant-garde. The modernist architectural experiments of the Bauhaus, The Expressionist painting of leading artists such Paul Klee and Wassily Kandinsky...”²³

Egoera hori azken batean, krisi ekonomikoak eztanda egin aurretiko azken hauteskunde erregionaletan (1929) NSDAP alderdiak beste porrot bat jasan zuenean suma daiteke. Ekonomiak hobera egiten zuela kontuan hartuz eta elitea Weimarreko Errepublikari leiala mantentzen zela ikustean (armadaren burua, lurjabe handiak, industriako jabe nagusiak eta Zerbitzu Zibilarren aginte gorenak bereziki), naziek ezin zuten korrante politiko nagusitik hazi eta bertan nitxo elektorala eskuratu.²⁴ Italian ikusi dugu elitearen laguntza nahita nahizkoa izan zela Faxismoa boterera iristeko. Hortaz, orain arte adierazi bezala, 1924 eta 1929 bitarteko epealdia nazismoari dagokionean xumea izan zen gizarte mailako fenomeno bezala.

Ez zen izango 1930eko hauteskundeetara arte Hitlerren alderdiak benetako indarra eskuratu zuela parlamentuan. Lehenago aipatu bezala, 1924 urteaz geroztik alderdia berrantolatzeari ekin zion izaera sendoago bat eman ez eta lidergoa *Führer*-aren irudiaren inguruan antolatuz. Aldi berean, gainontzeko eskuin muturreko alderdi eta mugimenduak xurgatzea edo desagertzea lortu zuen espektro politiko horretako bakarra bilakatu zelarik.

Ez zen 1929ra arte izango Alderdi Nazia Alemania osora iritsiko zela sare politikoa osatuz ordura arte administrazioa eskasa zelarik. Adieraztekoa da oraindik bozkatzaille kopuru oso txikia zuela alderdiak.²⁵ “Gerriko Gorria” deituriko eremuetan (gune industrialak ezkerreko mugimenduek indar handia izaten dutena) naziek ez zuten botorik eskuratzen. Bozka gehienak iparraldeko erregioetatik eta landa mundutik zetozen nekazaritzaren sektoreak jasaten zuen depresioak eraginda eskuratzen zuten. Emaitza txarrak hein handi batean, Marxismoaren igoeran eta ezkerreko alderdien indarrean kokatzen zela ondorioztatu zuen Hitlerrek.²⁶

NSDAP-aren igoera ulertu ahal izateko, Hitlerren irudira eta liderraren kultura jo behar da. Ordura arte, Adolf Hitler eskuin muturreko alderdi bateko beste lider bat besterik ez zen. Estrategia eta politika aldaketa honekin, espektro horretako alderdi aglutinatzaile bakarra

²³ KERSHAW, I (1998). 258or

²⁴ KERSHAW, I (1998). 259or

²⁵ KERSHAW, I (1998). 260or

²⁶ KERSHAW, I (1998). 303-304or

izatera pasa zen. Aldi berean, botere guztia bere esku geratu zen “Hitlerren Mugimendua” bihurtuz.

Orain arte aipatutakoaz gain, beste aspektu garrantzitsu bat nazismoaren arrakasta ulertzeko biolentziaren igoera aztertzea jo behar da. Hamarkada amaieran lorturiko hauteskundeetako emaitza txarrek naziak ekintza oldarkorrek areagotzera eraman zuten (Mussolinik pausu berdina jarraitu zuen). Bestalde, SPD eta Komunista Alemanek (KPD) errepresentazio kopuru esanguratsua eskuratzen zuten hauteskundeetan garaile nagusiak ezkerreko alderdiak zirelarik.²⁷

Italian Squadrek egiten zuten bezala, SA erakunde paramilitarrek Alemaniako Alderdi Komunistetako erakunde armatuekin (Rotfront) sartu ziren etsaitasunean. Alemaniako hiri nagusietan gatazkak handitzen joan ziren NSDAP edo SA-koek komunisten mitinak zapuzten zituztelarik eta alderantziz. Italian gertatu zen fenomeno berdina errepikatzen da erakunde paramilitarrek kaosa eragitean. Ezberdintasun nagusia Alderdi Komunistakoek ekintza hauei erantzun egiten zietela izan daiteke Italiako Sozialisten pasibotasunaren aurrean. Epealdi hau nahiko konbultsoa izan zen Prusiako gobernuak 1930ean lege bat atera zuelarik funtzionarioei NSDAP eta KPD-ko kide izatea debekatzeko ziena.

Baina aspektu nabarmenetako bat agintean aurkintzen ziren indarren arteko tentsioa izan zen. SPD alderdia gerrarako kuzeroak sortzearen kontrako politika batekin aurkeztu zen hauteskundeetan. Ekintza honek alderdiaren barnean zatiketa eta gatazka sortzea eragin zuen. Ruhreko burdina beharrezkoa zen gerrarako ontzi hauek eraikitze eta harturiko erabakiak kritikak ekarri zizkion eskuinetik zein ezkerretik aldi berean gobernuan zatiketa eraginez. Lehen aldiz, Weimarreko Errepublikan eskuin kontserbadoreen eskutik ongizate estatuan eginiko aurrerakuntza sozialen politikak atzera botatzeko saiakera eman zen.²⁸

Lehen aipatu dugu Weimarreko Errepublikan “Urrezko Urteak” egon zirela, eta klima ekonomiko eta sozial horrek agian naziei boterera iristea galarazi ziela. Bestalde, badirudi “urrezko” epe hori ez zela horrenbesterako izan. Gizarte alemana guztiz banandua aurkitzen zela dirudi bai aspektu sozialen aldetik, bai ekonomikoki eta baita kulturalki ere.

1928ko hauteskundeek gizartearen banaketa hori ondo erakutsi zuten KPD alderdiak igoera esanguratsua izan zuenean. SPD-k eta KPD-k 207 eserleku eskuratu zituzten bien artean²⁹. Aldi berean, zentroko zein zentro-eskuineko alderdi Liberalek 1919az geroztik indar, presentzia eta proportzio nabarmena galdu zuten parlamentuan. Liberalen desintegrazio eta zatiketak desilusioa eta aldaketarako nahia zegoela adierazten zuen eskuineko bozkatzailen artean naziek indarra eskuratu baino lehenagotik ere. Pixkanaka, lehenago liberalei bozkatzeko zietenak (DNVP) eskuineragoko mugimendu eta alderdietara joko zuten hein

²⁷ KERSHAW, I (1998). 302-303or

²⁸ KERSHAW, I (1998). 306or

²⁹ https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_parlamentarias_de_Alemania_de_1928

handi batean. Azkenean, lehen aipatu bezala, NSDAP-k gainontzeko eskuineko alderdi erradikalak xurgatu zituen ez jatorri liberala zuten askok ere bertan bukatu zuten.³⁰

Inflexio puntua ordea 1929an gertatu zen. Krisiak oraindik ez zuten egin ez bazuen ere, naziek erabilitako estrategiak elektoralki haztea bermatu zieten Saxonia, Baden, etab bezalako eskualdeetan. Aldi berean, gobernu alemanak Young bankari amerikarraren Ameriketako General Electric Company-arekin akordio bat itxi zuen. Tratu honek eskuin nazionalista burges eta kapitalisten haserrea eragin zuen nazioaren eskubidea “bortxatua” izan zela uste baitzuten akordio honekin. Akordio hau, Hitlerren iagoera izango zenaren hazia eraitzeko gertakaria izan zela esan daiteke orain ikusiko dugun bezala.

Alfred Hugenberg, DNVP alderdi liberalaren burua eta prentsen magnate handienetakoa, Young Plan honen aurka agertu zen. Prentsa nazionalista eta zine konpainia garrantzitsuak kontrolatzen zituen eta eskura zuen oro erabili zuen tratu honen aurka joateko eta gobernuak plan hori deuseztatzeko. Hitlerri kanpainara batzeko eskatu zion.

Hugenberg beste industriako kapitalista garrantzitsuen komite berekoa zenez, NSDAP alderdiko hegal iraultzaileenari ez zitzaion gustatu Hitler kapitalista eta erreakzionarioekin batzea. Hala ere, Hitlerrek politikoki hazteko eta boterea eskuratzeko aukera ikusi zuen eliteek beregan jarri zuten interesa ikusterakoan.

Hala ere, 1929ko abenduko Young Planaren aurkako kanpainak porrota jasan zuela adierazi behar da. Baina Hugenberg-en prentsan agertu izana eta goi mailako kontaktuekin eta influentzia esferetan mugitu izanak, Hitlerri beharrezkoa zuen bultzada eman zion pertsonai ezaguna bilakatzeko. Hugenberg nahitaezkoa da nazien iagoera ulertzeko.³¹

Hau guztia dela eta, elite eta burgesia kapitalista alemanaren laguntza (finantzazioa, prentsan agertzea, etab) eta 1929 azaroko burtsa krisiak bidea garbi utzi zion Hitlerri boterea eskuratzeko. Hitlerrek bere diskurtsoetako enfasia eta propaganda Weimarreko sistemak zituen hondamen eta krisi ekonomiko eta politikoetan zentratzen zituen. Hondamendi ekonomikoa demokraziaren legeak jarraitzeagatik eman zela baieztatu zuen. Aldi berean, gizartean banaketa sozial garbia zegoela adierazten zuen alderdi politikoek eraginda. Ordura arteko sistema ordezkatua izan behar zen:

“The only salvation from decline was through power: “The entire system must be altered. Therefore the great task is to restore to people their belief in leadership (Führerglauben),” he concluded.”³²

Boterea eskuratzeko ezinbestekoa zen. Horretarako, Hugenberg-en DNVP eta Hitlerren NSDAP alderdiak koalizioan joan ziren 1930az geroztiko hauteskundeetan. 1932an guztira hiru hauteskunde egon ziren kantziler berriek ez zutelako lortzen gehiengo aginte bat sortzea.

³⁰ KERSHAW, I (1998). 306-307or

³¹ KERSHAW, I (1998). 310or

³² KERSHAW, I (1998). 309or

Hindenburgak eta gainontzeko hautagaiek (Brüning, Von Papen) ez zuten Hitler izendatu nahi kantziler bezala naiz eta ordurako jada lehen alderdia izatera iritsi ziren.

Baina denborarekin, Hitlerrekin koalizioan sartzea onartu zuten bai Hindenburgak zein Papenek naziak kontrolatzeko gai izango zirela uste zutelarik. Berehala konturatu ziren Hitler eta naziak ezingo zituztela kontrolatu kantziler izendatu eta gutxira boterera iristen lagundu zioten zenbait politikari eta burgesak erail edo kontzentrazio esparruetara bidaliko zituelarik.

Behin boterean, nahiz eta oraindik ganbararen gehiengoa ez kontrolatu, kargu berriak ematen zizkion abantailak aprobetxatu zituen. Aldi berean, industrietako kapitalista ezberdinen finantzazioarekin berriro ere 1933ko hauteskundeetan aurkezteko plana jarri zuen martxan. Hemendik aurrera Hitlerrek botere guztia bere gain hartzeko prozesuari ekingo dio (oposizioko komunista eta sozialdemokraten aurkako neurriak, alderdien ilegalizazioak, legeen aldaketak ...). Modu honetan, 1934rako Hitlerrek botere guztia bere gain hartu zuen oztopo bakarra Hindenburg bera izaten jarraitzen zuela. Baina 1934ko abuztuaren 2an Hindenburg hil egin zen. Momentu horretan Hitlerrek kanzilerraren eta presidentearen karguak batu zituen nazismoak botere absolutua eskuratuz Alemanian.

FAKTORE NAGUSIAK

Ikusi dugu Hitlerren prozesua Mussolinirena baino luzeagoa izan zela. Baina Faxismoak eta Nazismoak prozesu eta egoera antzekoa izan zuten gutxiengo alderdi bat izatetik Alemania eta Italia bezalako herrialde garrantzitsuetako agintea eskuratzera iritsi arte. Ikusi dugu zeintzuk izan ziren faktore nagusiak Nazismoaren eta Faxismoaren igoera ulertzeko: elite eta burgesia kapitalista baten finantzazioa, elite barneko tirabirak, ezker mugimendu iraultzaileen presentzia garrantzitsu bat eta erakunde paramilitarren erabilera (SA, Squadrak, Freikorps, Arditi, etab) kaosa eta segurtasun falta areagotzeko.

Eliteen laguntzarik eta orduko erregimenaren baimenik gabe mugimendu hauek boterea eskuratzeko oso zaila izango zuten. Burgesiaren gehiegizko beldurrak komunistek edo sozialistek Errusian bezala iraultza bat egin zezaketela izan zen faktore determinagarria. Italiako erregimen monarkikoa (Victor Manuel) eta Alemaniako errepublika (Weimarrekoa) sistema kapitalista burges eta liberalak izateagatik berdintzen ziren. Alemanian SPD-a elite kapitalisten mendean integratu izanak (sistemaren bermatzea) benetako ezkerreko iraultza bat gertatzea ekidin zuen. Italian paper hori Mussoliniren Faxistek egin zutela adierazi dugu (biak elementu kontrairaultzaileak dira).

Elementu kontrairaultzaileak eta elitearen jokabidea ezin da ulertu gizarte mobilizatu bat gabe. Ezkerreko mugimenduen ekintzak, iraultzarako nahiak, sistemaren ezabaketak, politika eta ekonomia sozialista, komunista edo sobietarrak ezartzeko nahiek edo desioek, eliteen beldur handiena suposatu zuten. Ezker iraultzailearen presentzia eta langileria mobilizatu bat gabe ezinezkoa izango zen faxistak gobernura iristea. Gizartean ezker iraultzaileak indarra izan ez balu garai hartako European, eliteak inoiz ez zuten joko ultra eskuineko alderdi

hauengana sistema bermatzeko; izan ere, jada guztia ondo lotua izango baitzuten. Benetan sistema kolokan jar zezakeen bakarra ezker zen eta eliteek edozer egin zuten (faxistak eta naziak boterera eraman) hori gerta ez zedin. Gogora dezagun bai Mussolinik zein Hitlerrek beren diskurtsoak eta alderdiak antikomunismoan eta antisozialismoan zentratzen zutela.

Azkenik, ezker mobilizatu bat egoteak eta ultra eskuineko mugimendu oldarkorrek existitzeak, gizartearen polarizazioa eragiten du. Mugimendu edo indar antagoniko hauen artean altxamendu, gatazka, estatu kolpe, sabotaje, erailketa, etab ugari egon ziren 1919az geroztik. Honek guztiak segurtasun ezaren eta arriskuaren egoera handitzearen sentsazioa areagotzen zuen biztanleriaren artean. Kontuan izanda erakunde paramilitarrek agintarien oniritzia zutela eta segurtasunaren papera eskuin muturreko erakundearen esku geratu zela, erradikal bezala eta sistemaren aurkako bakar gisa ezkerreko alderdi eta mugimenduak geratu ziren.

EGUNGO EGOERA

Lau faktore hauek izan baziren faxismoa eta nazismoa boterera eraman zutenak 1920 eta 1930eko hamarkadetan, posible al da fenomeno berdina egungo Europan errepikatzea? Testuinguru historiko konkretu bateko fenomenoak direla kontuan izanda, legezkoa al da egungo eskuin muturreko alderdiak naziekin edo faxistekin alderatzea? Erantzuna argia da: ez, ezin da.

Egon badaude alderdi faxistak, baina ez dira Europako herrialde ezberdinetan indarra eskuratzen dabiltzan alderdiak hain zuzen ere. Horretarako, alderdi faxista klasikoen eta ultra eskuin berriaren arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertu behar dira. Hori gauzatzeko, Ignazi Piero politologo eta kazetari italiarrak egindako kategorizazioa hartu dut kontuan.

Pierok, Europako eta Italiako eskuineko mugimenduak aztertu ditu aldi berean eskuin muturreko alderdien kategorizazio bat garatu duelarik. Kategorizazio horren arabera, alderdi bat faxista edo nazia izateko nolabaiteko herentzia faxista eta sistema politikoaren ukamena edo baieztapena egon behar dute. Hots, egindako tipologia hau kontuan hartuz, alderdi bat ultra eskuinaren barnean sartu ahal izateko faxismoaren lotura historiko eta ideologikoa ase beharko litzuke edo indarrean dagoen sistema ukatu balio eta ekintza konkretu batzuen bidez. Bi aspektu hauek betez gero, antzinako eskuin alderdien barruan sartuko litzateke. Sistemaren aukako aspektua bakarrik beteko balu berriz, ultra eskuin berriaren barnean sartu beharko litzatekeela ondorioztatu zuen Ignazi Pierok.³³

Lanean zehar aipatu dugu ultra eskuinaren elementu esanguratsuenetariko bat indarrean dagoen sistema ukatzea dela. Honetaz gain, mugimendu hauek modernitatearen ukapena adierazten duten diskurtso bat izateagatik, nazioaren eta operatzen duten komunitatearen

³³RODRIGUEZ JIMENEZ, J (1998). 16or

goraipamen nabarmen bat egiteagatik eta atzerritarrekiko oldarkortasunagatik karakterizatzen dira. Izatez, orain aipaturiko elementuak lirateke alderdi faxista tradizionalen eta egungo eskuin muturreko alderdien artean dagoen loturarik zuzenena. Nazioaren eta sinbolo nazionalen goraiapamena. Aldi berean, beste elementu komun bat agerikoak diren etsaiak izatea litzateke (komunistak/judutarrak; musulmanak/terroristak):

Rodriguez Jimenezen arabera, faxismoarekin lotuta dauden azken hamarkadetako alderdiak zeintzuk sinbologia, kondaira eta erretorika berdina mantentzen dutenak *Movimiento Social Italiano*, *Partido Nacional Demócrata Alemán*, *British National Party*, *National Front Ingles*, *Unidad Nacional en Grecia*, *FE de las JONS* y *Círculos Doctrinales Jose Antonio* lirateke. Aldi berean, kontuan hartu behar da alderdi guzti hauek atzerakada nabarmena jasan dutela egun talde gutxituak direlarik eta nostalgikoengatik osatuak bereziki.

Bestalde, azken hamarkadetan edo 80. hamarkadaz geroztik arrakasta lortu duten alderdien gehiengoak ideologikoki ez direla faxismo historikoaren nostalgian oinarritzen aipatu behar da. Eskuin muturreko alderdi berri hauen artean *Frantziako Frente Nazionala*, *Alemaniko Errepublikarrak*, *Belgikako Frente Nazionala eta Vlaams Blok*, *Askatasunaren Alderdi Austriarra*, *Norvegiako Progresioaren Alderdia eta Suitzako Ekintza Nazionala* leudeke. Hala ere, ondorenean azalduko dudana bezala, gaur egun goran aipatzen diren baino alderdi gehiago aurkitzen dira eskuin muturreko espektroaren barruan.³⁴

Lan honen helburuetako bat, faxismo eta nazismo tradizionalak egungo eskuin muturreko alderdiekin antzekotasunak dituzten ala guztiz ezberdinak diren aztertzea da. Aldi berean, 1920/30eko hamarkadetan gertatu zena errepika daitekeen ala ez ondorioztatzea da. Horretarako, egungo testuinguru politiko eta soziala zein den azertu behar da.

Goran ikusi dugu zein faktorek eragin zuten faxismo eta nazismo klasikoaren igoera. Kontuan izanda faktore determinagarri bat (garrantzitsuena ez bada) garai hartan zegoen langile mugimendua indartsua eta iraultzailea zela, gaur egun ezinezkoa litzateke alderdi faxistak edo eskuin muturrekoak termino berean iristea boterera. Gaur egungo langileria eta ezkerreko alderdiak oso desitxuratuak aurkitzen dira. Ez da masa kritikoa eta iraultzailerik existitzen. Proletalgoaren klasea bera ere desagertu egin da hein handi batean; izan ere, gehiengoak ez du bere burua klase horren barruan sartzen nahiago izaten duelarik bere burua erdi mailan kokatu. Klase proletariokoa kontsideratzea egun bezalako gizarte batean "umiliagarria" izan daiteke jende askorentzat (itxurari eta estatusari garrantzi handia ematen dion gizarte batean alegia). Bestetik, indibiduoaren irudiari lehentasuna ematen zaio irudi kolektiboaren aurrean. Langileria indartsu, mobilizatu eta bateratu bat gabe ezin da ezkerreko alternatibarik eraiki indarrean dagoen sistema kapitalista neoliberalaren aurka.

Europa eta mundua agintzen duen sistema kolokan jarriko duen alternatibarik eta aldarrikapen garrantzitsurik gabe, eliteek ez dute tresna berririk behar euren pribilegioak eta

³⁴ RODRIGUEZ JIMENEZ, J (1998). 17or

sistema bermatzeko. 1920ko eta 30eko hamarkadetan tresna eraginkorra faxismoa suertatu bazen, egun ez da beharrezkoa eskuin muturreko alderdietara jotzea sistemaren iraupena bermatzeko. Sistemari alternatiba emango dion inor gabe, ez da beharrezkoa hura geldituko duen beste bat sortzea edo goraiatzea.

Idea honekin lotuta, Bigarren Mundu Gerraz geroztik nagusitu ziren ezkerreko alderdi indartsuenak alderdi sozialdemokratak eta komunistak izan zirela esan behar da. Alderdi sozialdemokratei dagokienean, ekonomia eta sistema kapitalistan guztiz integratu ziren. Ekialdeko bloke komunistari aurre egiteko, ongizate estatuaren politiken alde agertuko dira bereziki aspektu sozialean zentratuz (alderdi kontserbadoreekiko duten ezberdintasun nagusia). Alderdi komunistak berriz, Europan zehar pixkanaka influentzia galduko dute eta Sobietar Batasunaren erorketaz geroztik, oso leku gutxitan mantentzen dute errepresentazio esanguratsua (Errusia, Portugal, Grezia). Aldi berean, alderdi historikoa izan zen beste herrialde batzuetan oso presentzia txikia eskuratzera pasa dira (Frantzia, Italia). Sobietar Batasunaren erorketak, sistema kapitalistari alternatiba ematen zion modeloaren suntsipena suposatu zuen.

Hori dela eta, Sobietar Batasunaren erorketaz geroztik ez dagoenez sistema ordezkatzeko duen arriskurik alderdi sozialdemokrata guztiak geroz eta eskuinerago kokatzen joan dira. Politika sozialdemokratak aplikatuzetik, politika sozio-liberalak edo neoliberalak aplikatzera pasa dira ongizate estatuarentzako lortutako guztia deseginez. Gaur egun ia ezinezkoa da alderdi kontserbadore tradizional bat eta alderdi sozialdemokrata bat bereiztea biek aplikatzen dituzten politika ekonomikoak berdinak baitira.

Orain arte sozialdemokratek indar handia izan dute eta horrek ezker masa mobilizatu bat izatea zaildu du hein handi batean. Izan ere, jendeak benetako ezker erreformatzaile edo baliagarri bezala ikusi ditu duela gutxira arte. Bestalde, kontserbadoreek eta sozialdemokratek Europako herrialde ezberdinetan erregimenak bermatu dituzte garai batean elitearen arten ematen zen tirabirak existitu ez direlarik (gobernu alternantziak).

Ezkerreko alderdien desitxuratzea eta sistemarekiko alternatiba ez existitzeak ondorioz, alderdi faxistak edo ultra eskuinekoa gobernura iristea zailtzen dute ez baitute elite eta burges kapitalisten laguntza eskuratuko. Aldi berean, ezker masa mobilizatu bat izan gabe (edo gizarte minimoki mobilizatu bat) ezinezkoa da "kaosa" sortzea 20. hamarkadan bezala. Garai hartan erakunde paramilitarrek kaosa eragiten bazuten ezkerari egotz ziezaiekeen eta eurak ordenaren bermatzaile bezala agertu. Egund ezinezkoa da etsaiari salatzea edo leporatzea ez baita inolako ekintza oldarkorrik existitzen.

Beraz, eskuin muturreko alderdi hauen boterea eskuratzeko mekanismoak oso ezberdinak izango lirateke. Izatez, esango nuke eliteek eskuin nazionalista eta protekzionista hauei dietela beldurra. Frantzian ikusi berri dugu nola PSF tradizionalako agintariek (Hollande, Valls) Macron bezalako neoliberal bat nahiago izan duten kandidatura bat ezerezetik sortuz sistema bere horretan mantentzeko.

Baino jo dezagun ikustera zeintzuk diren egungo alderdi nagusiak eskuin muturrean. European dagoen espektro honetako alderdi esanguratsuena Frantziako Frente Nazionale litzateke. Izatez, Frente Nazionalak paper berezia izan du 2017ko maiatzean izandako Errepublikarako hauteskunde presidentzialetan eta urte berean garaturiko hauteskunde legegileetan. Frente Nazionale Vichyko erregimenean (nazien agindupean aurkitzen zen gobernu frantses kolaboratzailea) eta 50. hamarkadako mugimendu poujadistan oinarritu zen hein handi batean. Mugimenduaren sortzailea J. M. Le Pen izan zen, eta alderdia “eskuin popular, sozial eta nazional” bezala deskribatu zuen. Aldi berean, gainontzekoek faxista deitu izan diotenean hau beti defenditu izan da akusazio horietaz. Mota honetako mugimenduek momentu oro faxismo tradizionalatik urruntzeko esfortzua egin dute alderaketa horiek arbuiatuz.³⁵

Egun badirudi aldaketa politiko eta sozial ugari epealdia dela. Europa mailan zein marko internazionalan orain arteko dinamika eta instituzioen ahultze bat ematen hasi dela dirudi. 2008az geroztik jasandako krisi ekonomiko gogorak eta Europako herrialde ezberdinek ezarritako austeritate politikek, gizartearen zati handi batean alderdi politiko tradizionalakiko desilusia eragin dute. Aldi berean, austeritate politika hauek Europar Batasunetik zuzenduak egotean sentimendu anti-europarra hazi egin da modu esanguratsuan Europar Batasuneko biztanle askoren artean³⁶. Esandakoaz gain, European indar handia izan duten eta denbora luzez agintean egon diren alderdi Sozialdemokratik krisian sartu dira (PSOE, PSF, PASOK, SPD, etab) alderdi kontserbadoreen austeritate politika berdina aplikatzeagatik.³⁷ Paradoxikoa dirudien arren, indar kontserbadoreek (austeritate politika berdina ezartzen dituztenak) askoz hobeto eutsi diote krisi honi (ezkerraren aldetik agian traizio bezala ikus daitekeelako alderdi sozialdemokraten ekintzei).

Espaniari dagokionean, azken urte hauetan ordura arteko bi alderdi tradizionalen txandakatze sistema kolokan jarri dela esan daiteke alderdi berrien agerpenarekin. Frantzian gauza bera gertatu da historian lehen aldiz Errepublikarako hauteskunde presidentzialetan ordura arteko bi alderdi tradizionalak (Errepublikarrak eta PSF) hautagairik bigarren buelta batera ez iristean. Izatez, PSF alderdiak %6a bakarrik eskuratu zuen maiatzeko hauteskundeetan agintean zegoen presidentea (François Hollande) alderdi berekoa zenean. Italiako egoera politikoa ere nahiko desegonkorra da 2008az geroztik (krisiaren hastapena) 5 presidente ezberdin izan direlarik batzuk urtebeteko mandatura iritsi gabe. Greziari dagokionean, bi alderdi tradizionalak krisian sartu ziren PASOK Greziako gobernuan denbora gehien egon den alderdia izatetik, azken hauteskundeetan %4,7a eskuratzera pasaz³⁸. Egoera Europa osoan errepikatzen ari da “pasokizazio” terminoa sortu dela sozialdemokraten gainbehera adierazteko. Izatez, SYRIZA ezkerreko alderdi anti-europarrak (teorian behintzat)

³⁵ RODRIGUEZ JIMENEZ, J (1998). 17or

³⁶ http://www.lainformacion.com/mundo/europeos-quieren-referendum-permanencia-UE_0_915208622.html

³⁷ <http://www.lavanguardia.com/internacional/20170510/422427102594/valls-muerte-partido-socialista-francia.html>

³⁸ https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_parlamentarias_de_Grecia_de_enero_de_2015

eskuratu zuen lehenengo aldiz gobernua biztanleriaren desilusio hori kanalizatuz. Aldi berean, Amanecer Dorado deituriko alderdi faxista herrialdeko hirugarren indarra izatera iritsi da KKE (Komunista greziarrak) alderdiarekin batera. Holandan, Hungarian, Austrian, Ingalaterran, etab ere mugimendu anti-europarraren edo euro eszeptikoen areagotze bat eman da azken urte hauetan.

Austriako 2016ko hauteskunde presidentzialetan bigarren bueltara iritsi ziren hautagaien artean FPÖ (Austriako Askatasunaren Alderdia) alderdiko burua aurkitzen zen. Alderdi honen politika nagusienenen artean euro-eszeptizismoa, xenofobia eta nazionalismo alemaniarraren goraipamena aurkitzen dira³⁹. Ingalaterran mugimendu anti-europarra edo Europar Batasunetik ateratzearena horren nabarmena izan da azken urteetan, BREXIT deituriko erreferendumean (Europar Batasunean geratu ala joan) batasunetik irtetea erabaki zutela ingelesak gehiengoak. BREXIT deiturikoa, agintean zegoen alderdi kontserbadoreak jarri zuen martxan (David Cameronen eskutik bereziki) momentuan indarra hartzen ari ziren mugimendu euro-eszeptikoei aurre egiteko hein handi batean. Momentu horretan UKIP deituriko alderdia indarra hartzen ari zen zeinak diskurtso anti-europarra, nazionalista britainiar sutsua eta atzeritarren aurkakoa zuena⁴⁰.

Hungarian ere eskuin erradikalaren edo mugimendu filofaxisten presentzia nabarmena da. 2014ko azken hauteskundeetan, JOBBIK (Hungaria Hobe Batentzako Mugimendua) deituriko alderdiak 23 eserleku eskuratu zituen aurrekoetan 47 eskuratu zituenean. Jaitsiera honen arrazoen artean hauteskunde sistema berriaren moldaketan eta agintean dagoen alderdi kontserbadorearen erradikalizazioan aurkitzen da. Hungarian FIDESZ alderdiak gehiengo nagusi batekin agintzen du 130 eserlekurekin⁴¹. JOBBIK alderdiaren programa euro-eszeptizismoagatik, globalizazioaren aurkakoa izateagatik, antisisionista eta nazionalista hungariar sutsua izateagatik gailentzen da⁴². Aldi berean, FIDESZ alderdia kontserbadurismo nazionalista eta euro-eszeptizismo (moderatuago) bategatik nabarmentzen da. Holandan ere fenomeno berdina ikus daiteke. 2012ko hauteskundeetan Holandako Alderdi Sozialdemokrata tradizionala (PVDA) herrialdeko bigarren indarra izan zen. 2017ko hauteskundeetan berriz, PVV alderdiak eskuratu zuen bigarren postua herrialdeko oposizioa bilakatuz eta sozialdemokratak zazpigarren posturaino jaitsiaz %5,7ko bozka bakarrik eskuratuz (2012an %25a eskuratu zuen)⁴³. PVV (Askatasunaren Alderdia) 2006an sortu zen ideologia islamofobo, euro-eszeptiko eta nazionalista holandar markatu batekin⁴⁴.

Ikus daitekeen bezala, Europako herrialde ezberdinetan eskuin muturreko alderdi ugari daukate parlamentuetan presentzia indar handiago edo gutxiengoarekin. Esan dugu muturreko alderdien igoeraren arrazoietako bat krisi ekonomikoak eta honengandik

³⁹ https://es.wikipedia.org/wiki/Partido_de_la_Libertad_de_Austria

⁴⁰ https://es.wikipedia.org/wiki/Partido_de_la_Independencia_del_Reino_Unido

⁴¹ https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_legislativas_de_Hungr%C3%ADa_de_2014

⁴² https://es.wikipedia.org/wiki/Movimiento_por_una_Hungr%C3%ADa_Mejor

⁴³ https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_generales_de_los_Pa%C3%ADses_Bajos_de_2017

⁴⁴ https://es.wikipedia.org/wiki/Partido_por_la_Libertad

bideratutako austeritate politikak aurkitzen direla. Hemen ikus daiteke 1920 eta 30eko hamarkadetako gertakariekin ezberdintasun nagusia.

Epe horretan langileriaren edo biztanleriaren haserrea ezkerreko alderdiek kanalizatzen zuten bitartean, gaur egun diskurtso hori eskuin muturreko alderdiei utzi die ezkerrek errealitatek urruntzerakoan eta eskuineko politika berberak ezartzerakoan (sozialdemokratak). Sozialdemokrata klasikoen esparrua ez du ezker iraultzaile edo apurtzaile batek bete (gehienez ezkerreko alderdi erreformista batzuk Podemos eta Syriza bezala), baizik eta ultra eskuinak.

Gaur egun indarrean dagoen sistema kolokan jar dezaketen indar nagusienak ultra eskuin anti-europarra edo euro eszeptikoak dira. Europar Batasuna baldin bada eliteek duten tresna garrantzitsuena eta ultra eskuina baldin bada honi aurre egin nahi dion aktore garrantzitsuetako bat, egun ezin da gertatuko 20. hamarkadan bezala eliteak faxismoa erabili zuenean sistema bermatzeko. Hau elementu garrantzitsua da ezberdintasuna sakontzerakoan.

Honetaz gain, badago beste faktore bat mugimendu hauen igoera edo suspertzea ekarri duena; hain zuzen ere, errefuxiatuen krisialdia. Faxismo eta nazismo klasikoek komunisteri edo judutarrei jotzen zutenean etsai bezala, eskuin nazionalista hauei gauza berdina gertatzen zaie errefuxiatuekin. Hitlerrek 1929ko krisi ekonomikoan aitzakia egokia bilatu zuen jendea erakartzeko. Judutarrak ondo bizi zirela eta euren lanpostuak kentzen zizkietela esaten zuen krisi ekonomiko gogor batean zudenengan. Egun ere krisi ekonomiko gogor bat jasaten gabilta eta biztanleriak ez du hobekuntzarik ikusten eta sumatzen austeritate politikekin; are gehiago, hezkuntzan, osasungintzan, lan eskubidean, etab etengabeko murrizketak egon dira.

Frente Nazionalak edo AFD bezalako alderdiek, jendearen egoera ekonomiko txarraz baliatuz etsai komun bat bilatzen dute baino eliteak guztiz fokuan jarri gabe (zenbaitetan sistemaren aurkako diskurtso erabiltzen dute). Egungo etsai komuna kanpotarra izango da, eta konkretuago kanpotar musulmana. Honekin lotua, immigranteen presentzia langabeziaren ideiarekin uztartu da egoera larrian dagoen gizartearen zati batek arazo kanpotarrarengan ipini duelarik.

Bestalde, naziek eta faxistek ezkerreko ekintza oldarkorak edo iraultzaileak aitzaki bezala erabiltzen bazuten gizartean beldurra eta desoreka eragiteko, egungo alderdiek Yihadismoa eta atentatu terroristak erabiltzen dituzte aitzaki bezala batez ere kanpotar musulmanak zaku berean sartzeko.⁴⁵ Beldurra oso elementu garrantzitsua da jendea manipulatzeko eta terrorismoa helburu horiekin erabiltzen da. Frantzia dugu eszenatoki horren adibide argienetarikoa:

⁴⁵RODRIGUEZ JIMENEZ, J (1998). 20or

“Desde luego, encuentran un obvio paralelo en los estereotipos elaborados por el Frente Nacional francés... mientras los franceses sufrimos dificultades miles de intrusos no parecen tener ningún problema para encontrar trabajo, casas y disfrutar de todos los beneficios del Estado.”

Aipu hau 1998ko liburu batetik hortua dagoen arren, guztiz aplikagarria da momentu honetan. Terrorismoarenganako beldurra eta fokua musulman guztiengan jartzerakoan, musulman komunitate osoari eta konkretuago errefuxiatuei kaltetzen zaie. Jende xumea denean gure herrialdera etortzen dena bizi baldintza hobeen bila, naziek judutarrekin egiten zuten bezala, gure egoera ekonomiko eta sozial kaxkarra hauen gainean ezartzen dugu benetako errudunak epaitu gabe. Naziak kexatzen ziren judutarrek euren lana, baliabideak eta dirua kentzen zizkietela. Beste zentzu batean, kanpotarrekiko analisi berdina egiten da eskuin muturreko alderdiengandik.

Errefuxiatuen egoera orain aipaturiko ideiarekin uztartzen da. Errefuxiatuen krisia Bigarren Mundu Gerraz geroztiko migrazio krisirik handiena da. Europarako emigrazioa eta immigrante ilegalen fluxuak beti eman izan dira, baina badirudi Siriako gerraz geroztik egoera hori handitu egin dela (gizarteko pertzepzioan behintzat). Lehenago modu apal eta fluxu txikiagotan iristen ziren bitartean, orain giza uholde handiak iritsi dira Turkia zein mediterraneo itsasotik. Fluxuak horren deigarriak bilakatu dira, zenbait alderdik errefuxiatuak eta immigranteak erabili dituztela etsai komun bat sortzeko eta sentimendu nazionala sustatzeko. Errefuxiatu masiboen etorrerak frantsesen, alemanen, italiarren, eta abarren bizi baldintzak okertuko dituztela salatzen dute euren dela lapurtuz. Libano bezalako herrialde txiki batek ordea, errefuxiatu kopuru oso nabarmena jasotzen du bere lurraldearen barnean⁴⁶. Bestetik, ez da gauza bera marko juridikoan errefuxiatua izatea (gerrak desplazatua) ala immigrante ilegal bat, nahiz eta ez den ezberdintasunik egiten.⁴⁷

Are gehiago, Europar Batasunaren eta Europako herrialde ezberdinetako gobernu kontserbadore tradizionalak zein sozialdemokratek ez dute askorik egin egoera hau hobetzeko. Izatez, neurri adierazgarrienak errefuxiatuen fluxuak etetea eta herrialdeetan sartzea edo geratzea debekatzea izan dira. Gogora ditzagun Turkiarekin itxitako akordioa⁴⁸ edo altxatutako baila eta alanbrada ezberdinak Hungaria, Mazedonia, Austria, etab bezalako herrietan⁴⁹. Gogora dezagun nola herrialde ezberdinek errefuxiatu kopuru bat asetzeko onarpena egin zuten eta hori ez den bete⁵⁰. Gogora gaitezen Calais eta beste leku batzuetan altxatutako kanpamenduez eta nola autoritateek egun batetik bestera desegin zituzten.

⁴⁶<http://www.efe.com/efe/america/portada/acnur-el-70-de-refugiados-sirios-en-libano-viven-bajo-umbral-la-pobreza/20000064-2894085>

⁴⁷http://www.berria.eus/albisteak/114352/errefuxiatuak_hartzera_derrigortuta_daudela_gogorarazi_die_nbek_estatuei.htm

⁴⁸ http://internacional.elpais.com/internacional/2016/04/03/actualidad/1459718006_987997.html

⁴⁹ <http://www.publico.es/internacional/europa-levanta-siete-vallas-mayor.html>

⁵⁰<http://www.deia.com/2017/03/03/mundo/la-ue-sancionara-a-los-paises-que-no-acojan-a-su-cuota-de-refugiados>

Politika guzti hauek errefuxiatuak edo immigranteak etsai bezala ikustea ahalbidetu dute eta ondorenean eskuin muturreko alderdi ezberdinek ideia hori sustatu.

“Y si bien es cierto que el nacionalismo es un factor común a distintos movimientos políticos y que si la extrema derecha no existiese continuaría siendo un factor importante en la esfera política, es el estilo de las afirmaciones nacionalistas (agresivas, históricamente selectivas), acompañadas además por la demanda de más autoridad para mantener la ley y el orden y la expulsión de los emigrantes, lo que ayuda a identificar la naturaleza de la extrema derecha, la cual ha conseguido presentar estos factores de una forma más agresiva y eficaz a nivel electoral.”⁵¹

Honekin guztiarekin ondorio ugari eskura ditzakegu. Lehenik eta behin, faxismo eta nazismo tradizionalak ezin direla alderatu egungo eskuin muturreko alderdi askorekin. Antzekotasun batzuk konpartitu dezaketen arren, testuinguru historikoa guztiz ezberdina da. Ezkerraren mobilizazioa determinagarria izan zen eliteek beldurra izateko. Eliteak beren pribilegioak eta sistema bermatu nahi izateak faxismoan bilatu zuen tresna nagusia. Beraz, burgesiaren papera eta agintearen onarpena (gogora ditzagun erakunde paramilitarrekiko begi ona) funtsezkoa da fenomeno hauen arrakasta ulertzeko. Egun aldiz sistema ez dago kolokan (Alemanian adibidez CDU eta SPD alderdiek sistema indar handiarekin mantentzen dute) eta eliteek ez dute alderdi hauen beharrik.

Bestetik, egungo eskuin muturreko alderdien igoera alderdi tradizionalen (bereziki sozialdemokraten) gainbeherarekin lotua dago. Azken hamarkadetan bideratutako politika neoliberalak gizartearen bizi baldintza okertu dute ezkerria ez dela gai izan haserre edo alternatiba bat osatzeko. Ondorioz, ezkerrek utzitako eremua eskuin erradikal, nazionalista eta intolerante batek bete du. Ezker borrokalaririk gabe ez dago alternatibarik ezta konfliktu esanguratsurik.⁵²

Aldi berean, marko komunaren sorrera XX mendean Europako nazioen artean egon ziren gerrak saihesteko egin zen hein handi batean. Denborarekin eta batez ere 2008ko krisiaz geroztik, horrek guztiak eztanda egin du Europar Batasunak elite eta sistema konkretu baten interesei begiratzen dielarik. Errefuxiatuen krisiak ere, Europak zabaltzen zuen eskuzabaltasunaren diskurtsoa bertan behera utzi du. Baina adierazi bezala, Europar Batasuna elitearen tresna nagusia da eta aipaturiko alderdi guztiak gutxienez politika euro eszeptikoa bultzatzen dute. 20. hamarkadan ez zen EB-na existitzen testuinguru historikoa aztertzen dugunean kontuan hartu behar delarik ere.

⁵¹ RODRIGUEZ JIMENEZ, J (1998). 19or

⁵² http://www.huffingtonpost.es/manuel-florentin/el-voto-obrero-de-marine-le-pen_a_22043307/

Ultra eskuinaren igoera erregimen politiko tradizionalaren deskredituarekin etorri da. Eliteek kapitalari eta interes propio batzuei lehentasuna jartzerakoan, gizartearen zati bat horri aurre egiteko eskuineko alderdietan babestu da.

Baino garrantzitsuena ez da alderdi hauek naziak ala faxistak diren identifikatzea. Hezkuntza bertatik aztertu behar dena da zergatik herrialde askotan (Frantzia, Grezia, Austria, Hungaria, Holanda, Polonia, etab) hartu duten fenomeno hauek horrenbesteko indarra. Benetako pedagogia eta kalitatezko hezkuntzarik gabe, alderdi hauek lantzen duten diskurtsoa barneratzea errazagoa da. Hezkuntza bertatik mugimendu hauen igoeraren zergatia azaldu gabe, akats berean eroriko gara behin eta berriz (gizarteak dituen arazoan errudunak identifikatzeko diagnostikoan alegia). Azkenik, ulertu behar dugu dinamika berdinarekin jarraituz gero (murrizketa politikekin eta sistema politikoaren deskredituarekin) etorkizunean eskuin erradikala boterera iristea errealitate orokortu bat bilaka daitekeela.

II. MARKO DIDAKTIKOA

Historialarien eta irakasleen helburu nagusienetako bat pentsamendu historikoa garatzea da. Pentsamendu historikoa sortzea ez da batere prozesu erraza zenbait etapa jarraitu behar direla. Baino pentsamendu historikoa sortzeko, lehenik eta behin historia nola irakasten den hartu behar da kontuan. Aldaketa eta Jarraikortasuna bezalako kontzeptu historikoak barneratzea ezinbestekoa da prozesua aurrera eraman ahal izateko, baino modu egokian bideratzen al da? Argi dago, kontzeptu hauek barneratzea funtsezkoa dela historian ematen diren prozesu ezberdinak ulertu ahal izateko. Kontzeptu hauek ezagutu edo aztertu gabe ezin dira gizarteko eta historiako oinarritzko fenomenoak edo mugimenduak antzeman. Beraz, kontzeptu hauen eta denborazkotasunaren (temporalidad) ezagutza nola ematen den ikusi behar da lehenik.

Joan Pagések eta Antoni Santistebanek esaten duten bezala, ikasleek lehen hezkuntza bukatzen dutenean informazio ugari metatu dute baina data, instituzio, pertsonai, etab bezala modu isolatu eta ulergaitz batean. Modu horretan ikasitako historiak ez du balio interpretazioak egiteko. Oroimenezko hezkuntza ereduak duen arazoetako bat, denborarekin edukiak ahazteaz gain, ez direla behar bezala barneratzen historiako prozesuak eta denbora historikoa (denbora nozioak).

*“Parece, pues, que al final de la educación obligatoria la imagen que el alumnado tiene sobre el tiempo histórico es la de una serie de paisajes borrosos e inconexos”.*⁵³

Oroimenezko irakaskuntzak garrantzia batez ere kronologian ezartzen du. Aldi berean, diskurtso itxi bat sortzen du; hau da, “historia horrela gertatu zen”. Diskurtsoa itxia izateak

⁵³ PAGÉS. J y SANTISTEBAN. A (1999). 1or

ez du inolako aukerarik uzten interpretazio berriak sortzeko historia bera oso mugatua gelditzen dela. Pentsamendu historikoaren edo historia eraikitzearen bitartez aldiz, aldaketa sozialetan, denborazkotasunean, iturrietan, eta abarretan zentratzea ahalbidetzen du. Bestalde, bigarren egoera honek diskurtso ireki bat erakusten du argudioak sortzea, eztabaidatzea eta interpretazio propioak gauzatzea bermatuz. Historia ireki bat izatean galdera berriak planteatzea posible da; hala nola, zeintzuk izan ziren arrazoiak eta ondorioak?, Beste modu batean gerta al zitekeen?, etab.⁵⁴ Kausalitatea eta intentzionalitatea barneratzea azken batean.

Baina pentsamendu historikoa sortzeko lehenik eta behin denborazkotasuna hartu behar da kontuan. Hala ere, bi autore hauek beharrezkoa ikusten dute gure denboraren kontzepzioa errebisatzea. Azken batean, Baumanek adierazi zuen bezala, gaur egun denborarekiko dugun pertzepzioa duela 100 edo 50 urte izan zezaketenaren oso bestelakoa da. Guztiz bizkortua doan mundu batean bizi gara emaitzak berehala eskuratu nahi ditugularik. Aldaketak eta garapen teknologikoak etengabekoak eta azkarrak direla kontsideratzen dituen gizarte batek ezin du duela 70 urteko denboraren kontzepzioarekin edo parametroekin jarraitu.

“En la “sociedad de consumo” de la era de la modernidad líquida, el tiempo no es cíclico ni lineal, como en otras sociedades conocidas de la historia moderna o premoderna. Es, al contrario, un tiempo “puntillista”, desintegrado en un cúmulo de fragmentos diversos...”⁵⁵

Gaur egun denboraren inguruan dagoen ideia aldaketa bizkortuarekin oso uztarturik agertzen da. Belaunaldi batetik bestera aldaketa horiek asimilatzeke nahikoa denbora ez dela igarotzen alegia. Honek guztiak ikasle eta nerabeekiko arazo edo nahasketa bat suposa dezake kontzeptu historikoak edo denborazkotasuna bera barneratzerako orduan.

Baina nola eraikitzen da pentsamendu historikoa? Historialari ezberdinek adierazten dute denborazkotasuna orainaldiaren, lehenaldiaren eta etorkizunaren artean gauzatzen dugun erlazioan datzala. Aldaketa eta Jarraikortasuna bezalako kontzeptuen interpretazioa gauzatzeko lehenaren, orainaren eta etorkizunaren arteko erlazio hori funtsezkoa da. Erlazio honen bitartez, zein elementu aldatu diren, zeintzuk mantendu diren oso antzeko eta zeintzuk mantendu diren baina aldaketa esanguratsuekin aztertzeke aukera eskaintzen du. Adibidez, memoria historikoa orainalditik iraganarekiko egiten den errebindikazioarekin erlazionatzen da:

“...la historia es el espejo de la realidad pasada en el cual el presente mira para aprender algo acerca de su futuro... La conciencia histórica trata del pasado como experiencia, nos revela el tejido del cambio temporal dentro

⁵⁴ SANTISTEBAN, A (2010). 35or

⁵⁵ PAGÉS. J y SANTISTEBAN. A (1999). 2or

*del cual están atrapadas nuestras vidas, y las perspectivas futuras hacia las cuales se dirige el cambio.*⁵⁶

Zenbait historialarik argudiatzen dute Historia aztertzearen azken helburua etorkizunaren azterketa litzatekeela; hau da, historian zehar eman diren fenomeno, prozesu eta gertaerak aintzat hartuta, historialariaren azken helburua etorkizunaren ikerketa gauzatzea dela. Ricoeur-en aburuz, antzina ez da interpretazio bat besterik zeina gure etorkizuna nolakoa izango denaren ideia ere bertan dagoen. Aitzinaren papera egungo aldaketa sozialen gakoak ulertzeko balioa duela dio.

Hala ere, ezin daitekeena egin da antzinako gertakariak eta prozesuak mendebaldeko kultura eta prisma batetik aztertu beste kultura eta gizarte batzuk aztertzen ditugunean.⁵⁷ Parametroak guztiz ezberdinak dira. Gauza bera gertatzen da egungo fenomeno edo prozesu bat beste aldi edo garai bateko elementu batekin alderatzen saiatzen garenean. Kasu honetan ere parametro ezberdinetan mugituko ginatke testuinguru historikoa guztiz ezberdina delako. Guk jorraturiko gaia bete betean sartzen da. Ikusi dugun bezala, egungo ultra eskuina faxismo edo nazismo klasikoekin antzeko terminoetan alderatzea ezinezkoa da testuinguru soziala, politikoa, etab guztiz ezberdina baita.

Denboratasunaren garrantzia ikusi ondoren, pentsamendu historikoa garatzeko errepresentazio sozialen edo historikoen analisia dator. Narrazioa da errepresentazio historikoaren oinarritzko pausua. Narrazioak orden konkretu bat ezartzen du eta pixkanaka konplexutasun maila handiagoa eskatzen duten formulak garatzea da helburua; hau da, pentsamendu kritikoa. Historiaren helburuetako bat ikasleak azalpen historikoak, kausalak, eta testuinguru batean egoki erabiltzen ikastea litzateke.

Historiaren interpretazioak anitzak dira, eta ikasleek euren interpretazioak egiten ikasi behar dute (betiere testuinguru historikoa kontuan izanda). Pentsamendu historikoa garatzeko pentsamendu kritikoa izatea funtsezkoa da, baina Levesque-ren ustez, imajinazioa sustatzea elementu garrantzitsua da. Levesque-k dionenaren arabera, imajinazio historikoa tresna erabilgarria da pentsamendu kritikoa garatzeko; hots, gure testuinguru historiko eta kulturaletik abiatuz, guztiz ezberdinak diren beste kultura, epealdi eta gertakariak aztertzeko aukera eskaintzen du. Imajinazioa testuingurua kokatzeko tresna dela adierazten du. Aldi berean enpatia garatzen da, zeina historiaren ikerketarako kontzeptu garrantzitsua da. Enpatiaren bitartez, garai bateko gizartea eta jendearen egunerokotasuna nolakoa zen galdetzeko eta zalantzan jartzeko aukera garatzen da. Interpretazioak eta galderak formulatzean pentsamendu kritikoa eta historikoa sustatzen da azken batean. Enpatiak testuinguru konkretu batean kokatu beharra eskatzen du.⁵⁸

⁵⁶ SANTISTEBAN, A (2010). 40or

⁵⁷ SANTISTEBAN, A (2010). 41or

⁵⁸ SANTISTEBAN, A (2010). 46or

Imajinazio historikoak testuinguru batean kokatzeko aukera eskaintzen badu, planteamendu hipotetikoak sortzeak pentsamendu kritikoa areagotu dezake. Benetan gertatu ez ziren eszenatokiak imajinatzea eta horien inguruko galdera hipotetikoak sortzea oso garrantzitsua da puntu aniztasuna, eragin zuten faktoreak aztertze gaitasun handiagoa, etab sustatzea ahalbidetzen baitute. Honek guztiak gizartearen eta historiaren konplexutasuna agerian uzten dute. Gure azter gaira egokituz, zer gerta zitekeen eliteek faxismoa eta nazismoa goraiatu ez balute? Nazismoa boterera iritsi ez balitz Bigarren Mundu Gerra berdin gertatuko zen ala ez? Zer gerta liteke gaur egun langile masa mobilizatu bat agertuko balitz?, etab.

“...debemos enseñar a nuestros estudiantes y, al mismo tiempo, trabajar con la creatividad que implica imaginar otros futuros del pasado... El pensamiento creativo histórico abarca desde la imaginación histórica, hasta la empatía, la contextualización y la competencia para pensar alternativas al pasado, al presente y al futuro... la consideración del pasado como una posibilidad que fue, nos permite pensar en el futuro como diversas posibilidades que podrían ser. Y en este pensar en el futuro se interrelacionan la creatividad histórica con la conciencia histórico-temporal.”⁵⁹

Baina historiaren interpretazioa gauzatzeko, eta ondorioz pentsamendu historiko bat garatzeko, ikasleek parte hartze aktiboa erakutsi behar dute. Irakaskuntza tradizionalaren bidez (oroimenezkoa azken batean) ikasleek jarrera pasiboa erakusten dute normalean pentsatzeko eta hausnartzeko aukerak murrizten direla; izan ere, irakasleak guztia eginda ematen dio (diskurtso itxia). Ikasleek jarrera aktiboa izateko hauen parte hartzea ezinbestekoa da irakasleak planteamendu, hipotesi eta aukera ezberdinak plazaratu behar lituzkeelarik. Ikasleek ikasi behar dute beren buruari galderak egiten. Adibidez, iturriak aztertuz ikaskuntza aktibo bat gauza dezakete. Proposamen didaktikoaren elementu garrantzitsua iturriak izango dira.

Iturri historikoen analisia gauzatzea metodologia berri eta apurtzaile gisa kontsideratua dago. Esan bezala, ikasleak jarrera aktiboagoa eskuratzen du protagonista bera bilakatzen dela; hau da, ikaskuntza autonomo eta pertsonalagoa garatzen da. Aldi berean, metodo honen bidez irakaslea bigarren plano batera pasatzen da. Irakaslea jada ez da izango edukiak bere osotasunean transmitituko duen “ontzia”, baizik eta gidariaren papera hartuko duena da. Irakaslea izango da ikasleei gidatuko diena bide zuzenetik joaten; hots, informazio egokia non bilatu, egoki hautatzen, informazioa kritikoki aztertzen, informazio hori prozesatzen, interpretatzen, etab irakatsiko diena. Irakaslea izango da azken batean goi mailako gaitasun kognitiboak garatzen lagunduko diena eta ezagutza sozial eta historikoa sortzen lagundu ere.

⁵⁹ SANTISTEBAN, A (2010). 48or

Oso garrantzitsua da irakasleak informazio hori ezagutza bilakatzen duena izatea. Horretarako, irakasle ikertzailearen papera sendotu behar da.⁶⁰

Iturri historikoen barruan edozein ondare material, dokumental, ahozkoa, patrimoniozkoa, etab sar daiteke zeinak betiere aitzinari buruzko informazioa eskain diezaguen. Iturrien elementu esanguratsu bat izaten da ez zaizkigula normalean bere horretan iristen, baizik eta informazioa eskuratu ahal izateko hauei galderak egin behar zaizkie. Galderak egiterakoan, pentsamendu historikoan sakontzen dugu eta hori da ikasi behar dutena ikasleek egiten. Edozein motatako iturri baliagarri bilakatu da betiere galdera egokiak egiteko gai baldin bagara eta aldi berean hauek deszifratzen:

“Un objeto de la vida cotidiana, una pieza de museo, un pergamino del siglo XI, una fotografía, una entrevista gravada,... sólo se convertirán en fuentes útiles para construir conocimiento histórico o social si les formulamos las preguntas adecuadas y sabemos ordenar y descodificar la información que nos ofrecen.”⁶¹

Guztira bi motatako iturriak aurkitzen ditugu: lehen mailakoak eta bigarren mailakoak. Lehen mailako iturriak garaian bertan sortutako elementuak dira eta oso anitzak izan daitezke. Bigarren mailakoak aldiz, komunitate zientifiko batek sortutakoak dira lehen mailako iturri horiek testuinguru historiko konkretu batean ezartzeko asmoarekin. Gure kasuan lehen mailako iturria izango da garrantzitsuena eta hauen barruan iturri dokumentalei dagozkie. Aldi berean, Iturri dokumentalen artean iturri dokumental zorrotza; hau da, hemeroteka (prentsa) eta politikoa (diskurtsoak) ezberdindu behar ditugu eta baita ere iturri audiobisualak; hots, irudi finkoak (argazkiak).⁶²

Iturri historiko hauek aztertzerako orduan eskuratu daitezken ondorioak egokitzapenaren eta iturrien aberastasunaren arabekoak izango dira. Baina faktore esanguratsu bat galderak egiten dituen historialari ala ikaslearen gaitasunekin uztartzen da. Aztertzeo pausoak eta ikasleek egiten dituzten galderak dira pentsamendu historikoa modu egokian sortzeko gakoa eta lehen adierazi bezala, irakasleak prozesu hori gidatu behar du. Iturriak gaizki aztertu eta landuz gero, pentsamendu zientifikoa eta ezagutza historikoa garatzea zailtzen du. Gorago aipatu bezala, iturriak modu egokian landu ahal izateko metodologia berritzaileak hartu behar dira kontuan. Ikasleak ez du jarrera pasiboa izan behar (entzulearena), aktiboa baizik (ikertzailearena).

Baino ikasleek ikertzailearen papera eskuratu ahal izateko, irakaslearen inplikazio berezia behar da metodo tradizionaletik kanpo. Metodologia berritzaile hori Interbentzio Pedagogiko Konplexua deritza. Lehenik eta behin, irakaslearen aldetik alde aurreko prestakuntza bat eskatzen du. Elementu esanguratsu bat metodo honen barruan ikasleari

⁶⁰ TRIBÓ TRAVERIA, G (2005). 60or

⁶¹ TRIBÓ TRAVERIA, G (2005). 85or

⁶² TRIBÓ TRAVERIA, G (2005). 87or

autonomia intelektual handiagoa eskaintzen diola datza ikertzailearen papera hartzera behartuz. Esandakoaz gain, honen barruan beste bi azpi atal aurkitzen ditugu: Ikerketa Lanak eta Simulazio Historikoa.

Ikerketa lanaren barruan ikasleei arazo bat planteatzean zaie. Planteatutako eszenatokia edo arazoa erantzun ahal izateko, irakasleak beharrezko materialak helarazi beharko dizkie. Hipotesi probisionalak formulatu beharko dituzte hauek baieztatuz edo deuseztatuz iturriei egiten dizkieten galderen bitartez; hots, informazioa prozesatu eta interpretatzen ikasi behar dute. Argi dago ikasleak ikertzailearen rola hartzen duela. Errepikatzen bagabiltza ere, irakaslearen papera metodologia honetan funtsezkoa da; hots, gidariaren papera. Kurrikuloko unitate didaktiko bat hartzea komeni da ondorenean hura egokitu behar baita. Gidari lan horren barruan lanaren jarraibideak eta arauak ondo definitzean aurkitzen da ikasleek galderak ondo erantzun, hipotesi egokiak formulatu eta analisi finala zehaztasunarekin egin ahal izateko. Gure proposamenaren metodologia bide honetatik joango litzateke.⁶³

Hala ere, Simulazio Historikoaren planteamendua ere egokia izan daiteke. Honen bitartez, ikasleak lantzen ari diren testuinguruan koka daitezke eta aztergai duten “pertsonaiekiko” enpatia bat garatu; hau da, haien lekuan jartzea ahalbidetzen du ulertuz zergatik garatu ziren gertakizun horiek bide batean eta ez bestean. Ondorenean azaltzen den bezala, Churchillen diskurtsoak eredu bezala hartuz, iturrien ikerketa honen bitartez Churchillek momentu horretan Hitler eta Mussolinirekiko esaten zituen gauzak zergatik esaten zituen ulertzean datza.

Prozesu eta metodologia hau nahiko konplexua da. Hori dela eta, irakasleak alde zuzenetik kontuan izan behar du zein gaitasun intelektual, sozial, afektibo, etab garatu nahi dituen. Honetaz gain, kurrikuloko zein gai metodologia honetara egoki moldatzen diren ondo ezagutu beharko du.⁶⁴ Beraz, ikusi berri dugun bezala, iturri historikoekin zuzenean lan egiteak historiaren interpretazioa sustatzeko konpetentzia gara dezake.

Esan dugu mota ezberdinetako iturriak daudela baino ikaslearentzako errazena bere iturri pertsonala edo familiarak izango zen hasiera batean. Historia modu egokian landu ahal izateko, iturri historikoak interpretatzea ezinbestekoa da. Ikasleek iturri ezberdinak interpretatzen, alderatzen, kontrastatzen, klasifikatzen eta galderak erantzuten jakin behar dute. Momenturo ikaslea izango da bere ikaskuntza prozesua aurrera eramango duena. Pages eta Santistebanen arabera, iturri historikoen erabilerak ondorengo onurak eta berrikuntzak ekartzen dizkio ikasleari:

- Testu liburuen eskema zurruna gailentzen laguntzen dute.
- Historia gertukoagoa izatea ahalbidetzen du.
- Debatitzeko eta diskusioak sortzeko aukera eskaintzen duen ezagutza historikoa da.

⁶³ TRIBÓ TRAVERIA, G (2005). 159or

⁶⁴ TRIBÓ TRAVERIA, G (2005). 162or

- Historia soziala lantzea errazten du (pertsonek egunerokotasuna).
- Ikaslearen motibazioa errazten du.
- Testu liburuetan agertzen den diskurtsoa berrinterpretatzeko aukera ematen du.
- Ikaslearen autonomia sustatzen du.
- Gelatik kanpoko lana eskatzen du zenbaitetan (informazio gehigarria eskuratzeko).
- Interpretazio historikoa bultzatu, etab.⁶⁵

Iturri historikoak lantzeak ikaslearen lan pertsonala edo autonomia sustatzen duenez, irakasleak modu egokian aukeratu beharko ditu. Normalean, iturriak interpretatzerakoan garrantzitsuena gertakariak berreraikitzea edo interpretatzea da. Behin hori gauzatu, aztertutakoaren ondorioak eskuratzeko da garrantzitsuena; hau da, zein ondorioetara iritsi gara?

Jakina den bezala, ikasleek ezin dituzte iturriak bere horretan aztertu. Irakasleak alde aurretik testuinguru jakin bat ezarri beharko du espazioa eta denbora konkretatuz. Honetaz gain, gehigarriak diren beste elementu batzuek ere testuinguru egoki batean txertatzea ahalbidetu dezakete (egilea, ekitaldi baten urteurrena, etab).

Adierazi bezala, garatutako proposamen honetan lehen mailako iturriak erabiltzea da helburu nagusia. Iturri historikoak erabiliz, eliteen eskutik Alemaniako nazismoarekiko eta Italiako faxismoarekiko zegoen konplizitatea agerian utzi nahi da. Kontraktotasunean, gaur egungo eliteek eskuin muturraren inguruan duten ikuspegia erakusten duten beste iturriak erabiliko dira (prentsa, etab).

Lehen mailako iturri gisa, Churchillen diskurtso batzuk eta elitea osatzen duten beste sektore batzuen deklarazioak erabiltzea da asmoa. Churchillen kasuan, bai Hitlerrekiko eta nazismoarekiko zein Mussolini eta faxismoarekiko hitz onak besterik ez ditu adierazten. Iturri idatziez gain, argazkiak erabiltzea ere proposamenaren barruan dago. Irudi hauetan, langile masa mobilizatuak ikus daitezke eta aurretik landutako diskurtsoarekin uztartuz gero, iraultza baten beldurraren ideiarekin lotzea posible bilakatzen da ikasleentzako. Bestetik, 20/30. hamarkadako iturri hauek aztertzeaz gain, egungoak ere erabiliko dira testuingurua zenbateraino aldatu den azter dezaten. Sekuentziaren atalean sakonago azalduta agertzen da.

Baina alderaketa hori gauzatzeko; hots, aldera ezina dela ondorioztatu ahal izateko, ikasleek errepresentazio sozialak interpretatzen eta lantzen ikasi behar dute. Gure kasuan, faxismoaren inguruan duten ideia izango zen aspektu nabarmenena. Faxismoa bezalako fenomeno bat bere espazioan eta denboran kokatu ondoren, ikasleari errazagoa suertatuko zaio aztergai duen elementua behar bezala analizatzea. Espazioak eta denborak testuinguru historiko konkretua adierazten dute. Modu horretan, ikaslea ohartuko da parametro edo baldintza konkretuetan sortu eta garatu zela egoera berria barneratuz.

⁶⁵ SANTISTEBAN, A (2010). 50or

Azken ideia hau da guztiaren funtsa. Ikasleak bi errealitateak aztertzen dituenean konturatuko da aldera ezina dela. Momentu horretan aldaketa eta jarraikortasuna bezalako kontzeptu historikoak barneratzea posible da. Aldera ezina bada testuingurua ezberdina delako, orduz geroztik gauza asko aldatu direla ondoriozta dezakete. Aldi berean, ultra eskuinaren barruan zenbait elementu antzekotasun handiekin mantendu direla ikus dezakete (sektore batzuekiko etsaitasuna, etab) jarraikortasun hori barneratuz, baina funtsezko aldaketak alde batera utzi gabe. Hau guztia iturri historikoen azterketaren bitartez garatu daiteke azkenik pentsamendu historikoa sortzea ahalbidetzen duelarik.

III. MARKO KURRIKULARRA

Hala ere, orain landutako guztiak ez luke ezertarako balio kurrikulora ezin balitz egokitu. Beraz, 2015eko Nafarroako LOMCEko kurrikuluma kontuan hartuz, proposamen didaktikoa egoki txertatuko den edukiak, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntza estandar ebaluagarriak azalduko dira. Nire proposamen didaktikoa ultra eskuinaren fenomenoak eta faxismo klasikoak lantzen dituenek, DBH zein Batxilergoan aplikatzeko dago diseinatua. DBH 4 eta Batxiler 1eko kurtsoetan Aro Garaikidea lantzen da nire gaiarekin zerikusia duten atalak bete betean txertatzen direlarik. Modu honetan, kurrikuloak biltzen dituen irizpideak eta proposamenari ondoen egokitzen zaizkion edukiak, gaitasunak, ebaluazio irizpideak, helburuak eta ikasketa estandar ebaluagarriak hartuko dira kontuan.

Kurtso ezberdinetan aplika daitekeenez, kurtso bakoitzari dagozkion elementuak egokitu behar zaizkio. Esan bezala, gai hau lan daitekeen lehen kurtsoa 4. DBH da. Kurtso honetako Geografia eta Historiako atala guztira hamar bloke ezberdinetan banatua dago. Guri interesatzen zaizkigun blokeak 5a eta 6a dira, baino bereziki 5a. Bosgarren blokeak “Gerra arteko epealdia (1919-1939)” du izena eta bertako edukien barruan faxismo italiarraren eta nazismo alemanaren nondik norakoak aztertzen dira. Konkretoago, “Faxismo Italiarra” eta “Nazismo Alemana” bezala azaltzen dira gai hauek.

IV. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Zein bloketan aplika daitekeen ikusi ondoren, bloke bakoitzeko ebaluazio irizpideak aztertu behar dira. Bosgarren blokea dugu lehenengoa; hau da, “Gerra arteko epealdia” deiturikoa. Atal honetan hurrengo ebaluazio irizpideak har daitezke kontuan gaiarekin zerikusia dutenak:

1. Gerra arteko epealdian, edo 1919tik 1939ra bitartean doazen hamarkadetan, zer nolako prozesuak eta gertakariak eman ziren ulertzea eta ezagutzea.

2. Epe honetako esplikazio historikoarekin lotura daukaten arrazoiak eta orainaldiarekin dagoen konexioa ikastea.
3. Europan faxismoak agintera eraman zituen arrazoiak eta zergatiak aztertzea.

Aipatutako hiru ebaluazio irizpideen artean lehenengoa eta hirugarrena oso egokiak dira planteatutako gaia lantzeko. Lehenengo puntuaren bidez, gerra arteko epealdian egon ziren prozesu ezberdinak aztertzea ahalbidetzen du Errusiar Iraultza, langile mugimendua, Lehen mundu gerraren ondorioak, etab bezalakoak. Ikusi dugu epe horretan jazotakoak lotura zuzena duela faxismoa eta nazismoaren arrakasta ulertzeko. Baina are nabarmenagoa da hirugarren puntuan ikus daitekeena. Konkretuki adierazten da aztertzeko zeintzuk izan ziren arrazoiak eta zergatiak (edo prozesua bera) faxismoa bezalako mugimendu bat boterera iristeko; hau da, zein faktorek hartu zuten parte nazismoak Alemanian eta faxismoak Italian arrakasta eskuratzeko analizatzea. Puntu honek bete betean jotzen du proposatutako gaiarekin. Bigarren puntuari dagokionean, bertako interesgarriena izango litzateke orainaldiarekin dagoen konexioa aztertzea naiz eta seguruenik beste paradigma batzuei egiten dien erreferentzia eta ez garatutako proposamenaren ildotik.

DBH 4ko kurtsoan aipatu dugu 6. blokea ere baliagarria izan zitekeela nazismoaren hedakuntza lantzen baita. Baina egia esan, atal honetan jada ez da inondik lantzen nazismoa boterera eraman zuten arrazoiak zeintzuk izan ziren aztertzeraz, baizik eta Hitler jada boterean egonda 3. Reichak gauzatu zuen hedapena ikustea. Izatez, ebaluazio irizpideek Bigarren Mundu Gerrarekin dute zerikusirik handiena. Beraz, ez zait egokia iruditzen proposamena lantzeko.

Hala ere, badago kurtso honetan beste bloke bat interesgarria suerta daitekeena. 8. blokea "XX eta XXI. mende berriko mundua" deitzean da. Bertan, XX. mendeko elementu esanguratsuak lantzen dira, baina baita egungo egoera ere. Bloke honetan ebaluazio irizpide bakarra iruditu zait baliagarria:

1. Mundu mailan epe ertaineko prozesu eta aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoak aztertu.

Kasu honetan, egun munduan eta konkretuki Europan (bertan zentratzen bainaiz) ematen ari diren aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialak aztertzea litzateke puntu nagusia. Egungo ultra eskuina bezalako fenomenoak aztertzeko irizpide baliagarria delakoan nago.

Lehenengo Batxilergoari dagokionean, kasu honetan ere interesatzen zaigun puntua 5. blokean aurkituko litzateke. Bloke honek "Gerra arteko epea, Bigarren Mundu Gerra eta honen ondorioak" du izena. Edukien barruan bi puntu izan daitezke interesgarriak proposamenerako. Alde batetik, "Garaiko ekonomia, kultura eta gizartea: 20. hamarkada" lantzen duen edukia genuke eta bestetik, "Faxismo europarrak eta nazismoa alemana"

lantzen dituen. Bi eduki hauek kontuan hartuta, ondorengo ebaluazio irizpideak suerta daitezke baliagarri:

1. Gerra arteko epealdiko ezaugarriak eta berezitasunak ezagutu eta dagozkion aspektu politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletan txertatu testuinguru historikoa kontuan hartuz (1)*
2. Europako faxismoaren ideologiak Europa mailako konfliktoetan izan zuen faktore eragilea adierazi (5).

Lehenengo irizpidetik garrantzitsuena hogeigarren hamarkadako egoera sozio-politiko aztertzearena litzateke. Ikusi dugu 20. hamarkada (eta konkrituago 1918-1920 bitarteko epea) mahiko epe konbultsoa izan zela naiz eta "Hamarkada Zoriontsua" bezala ezagutzen den. Hamarkada honetan ematen dira faxismoaren igoera ulertzeko gakoak beraz, proposamenarentzako puntu nabarmena delakoan nago. Bigarren puntua aldiz, ziurrenik faxismoak Bigarren Mundu Gerrarekiko izan zuen zerikusian zentratuko litzatekeela. Baina gure proposamenera hurbilduz, faxismoak jasandako igoeran eta bitarteko prozesu horretan egon ziren gatazka politiko eta sozialak aztertze baliagarria izan zitekeen; hau da, talde faxisten eta ezkerreko mugimendu eta alderdien artean egon ziren gatazkek aztertze baliagarria izan liteke baliagarria.

IKASKUNTZA ESTANDAR EBALUAGARRIAK

Proposamena zein eduki eta ebaluazio irizpideetarako egokia izan zitekeen ikusi ondoren, Ikaskuntza Estandar Ebaluagarriak hartu behar dira kontuan. Berrero ere DBH 4ko ikasturtea hartuko dugu kontuan eta konkrituago, 5. blokearen barnean aurki daitezkeen Ikaskuntza Estandar ebaluagarriak:

1. Orainaldiko eta lehenaldiko zenbait gertakari konkritu alderatu eta aldi berean etorkizunarekiko proiektio bat egin, 1929ko eta 2008ko krisiek izan zezakeen ahalmena eta garrantzia bezala besteak beste (1.2).
2. Azaldu Europako faxismoaren igoeran zerikusia izan zuten faktore ezberdinak eta hauen zergatia (3.1).

Ikusi berri dugun lehenengo Ikaskuntza Estandar Ebaluagarriak orainaldiaren eta lehenaldiaren arteko alderaketa bat egiteko eta aldi berean etorkizunarekiko proiektioa egiteko aipatzen du. Egia da 1929ko eta 2008ko krisi ekonomikoak aipatzen dituela eta lanean zehar ikusi dugula krisia ez zela faktore nabarmenena izan faxismoen igoerarentzako. Baina puntu honetako garrantzitsuena garai hartako faxismoaren prozesua, egungo ultra eskuinaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak aztertzea izango zen esanguratsuen; hau da, bakoitzaren testuinguru historikoa aztertuz, fenomeno hauek ea zergatik aldera

daitezkeen ala ez aztertzeke baliagarria litzateke. Bestetik, etorkizunerako aurreikuspen batekin, ikaslearen gizartea eta momentua ulertzeko ahalmena susta daiteke.

Adierazitako bigarren Ikaskuntza Estandarraren bitartez aldiz, proposamenerako garrantzitsua iruditzen zaidan aspektua jorratzen du. Faxismo eta nazismo klasikoak boterera eta agintera eraman zituzten faktoreak eta arrazoiak aztertuz, egungo egoerarekin alderaketa bat gauzatzea posible da eta horrela azkenik ondorioztatu zergatik ez diren antzeko fenomenoak edo prozesuak naiz eta zenbait elementu komunean izan ditzaketen. Puntu honek desberdintasunak agerian utziko lituzke.

8. blokeari dagokionean, ebaluazio irizpideetako puntua baliagarria iruditu zaidan arren (“Mundu mailan epe ertaineko prozesu eta aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoak aztertu”) Ikaskuntza Estandarraren barruan ez da aipatzen prozesu ekonomiko, sozial eta politikoak nik nahiko nituzkeen bezala. Agertzen den estandar nabarmenena “interpretatu Europako mapa politiko berriko nazioen berpiztea edo gainbehera” izango litzateke. Bloke honetan garrantzitsuena proposamenarekiko XXI. mendean eman diren aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoen nondik norakoak eta zergatiak aztertzea izango zen aldi berean 20ko hamarkadarekin alderagarria izan daitezkeen ala ez ondorioztatzeko.

Lehenengo Batxilergoan aldiz, bosgarren blokearen barruan ondorengoak izango lirateke Ikaskuntza Estandar Ebaluagarriarekin eta proposamenarekin bat egingo luketenak:

1. Azaldu I Mundu Gerraren Bake Tratatuen ondorioak epe motzera (3.1).
2. Alderatu faxismo italiarra eta nazismo alemana (5.1).
3. Ezberdindu XX. mende lehen erdiko faxismo europarraren sinbolo ezberdinak (5.2).

Lehenengo puntuan Bake Tratatuen ondorioak aztertzeke aipatzen du. Tratatua honek faxismoaren igoeran zerikusia izan zuen arren, nabarmenena izango zen Lehen Mundu Gerrak utzitako krisi politiko eta soziala aztertzea. Beraz, puntu hau aitzaki bezala erabili ahalko zen Alemaniako eta Italiako egoera aztertzeke behin gerra amaituta (Eberten agintea, iraultza sozialistak, etab). Bigarren puntua aldiz, garrantzitsua izan liteke faxismo italiarra eta nazismo alemana alderatzerako orduan. Antzekotasun ugari dituzten arren prozesua ezberdina izan zela ulertzeko balio dezake eta aldi berean, egungo ultra eskuineko fenomenoekin zein ezberdinak diren aztertu eta ulertu ere. Azkenik, hirugarren puntuan aipatu berri ditudan ezberdintasunak ulertzeko eta barneratzeko balioko luke; hots, faxismo eta nazismo klasikoko eta egungo mugimenduen arteko sinbologia zenbat aldatu den ulertzeko balioko luke berriro ere benetan korrelazioa dagoen ala ez ondorioztatzeko.

Ikus daitezkeen bezala, 2015eko Nafarroako LOMCE kurrikuloak proposamena txertatu daitezkeen hainbat atal hartzen ditu kontuan DBH 4ko eta Batxiler 1eko mailetan. Deigarriena

4. mailan, bosgarren blokean agertzen den Europako faxismoen igoeraren zergatiak eta arrazoiak aztertzea litzateke. Batxilergo lehenengoan berriz, bosgarren blokeko Lehen Mundu Gerraren ondorioak aztertzea (3.1) eta Alemaniako eta Italiako mugimendu faxista eta naziaren alderaketa (5.1) lirateke.

**Parentesi artean agertzen diren zenbakiak kurrikuloaren barruan zein ebaluazio irizpideri edo zein ikaskuntza estandarri dagokion adierazten dute. 4. mailako ebaluazio irizpideak zerrendaketako zenbaki berdinak dituztenez ez zaie parentesi artean jarri.*

3) PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Egindako proposamena gauzatzeko, Interbentzio Pedagogiko Konplexuaren metodologia hartuko da kontuan; hau da, lehen mailako iturri dokumentalak aztertuz ikasleek ikerlariaren papera eskuratuko duten metodologia alegia. Didaktikaren atalean adierazi dugu metodologia berritzaile honen bitartez ikasleak rol aktiboa eskuratzen duela. Baina metodologia honen barruan, Ikerketa Lana deiturikoa da agian egokiena. Bertan, irakasleak ikerketarako beharrezkoak diren materialak eta jarraibideak helarazten ditu. Ikerketa egin ahal izateko, aldeztatik irakasleak arazo bat planteatutako die hura ebatzi beharko dutelarik. Irakaslea izango da prozesuaren nondik norakoa gidatuko diena. Sekuentziaren atalean azaltzen den bezala, proposamen honek hainbat atal edo pausu ditu. Guztira lau pausu jarraitu beharko dituzte ikasleak. Bestalde, irakasleak momenturo hurrengo pausua zertan datzan azalduko die helburua argi izan dezaten.

Lehenengo pausuan, ikasleen aurre ideiak edo aurre ezagutzak jakitea izango da helburu nagusia. Horretarako, ikasleei galdetegi edo inkesta moduko bat pasako zaie hainbat galderekin. Galdera hauek kontzeptu ezberdinen inguruan duten ideia ezagutzeko baliagarria izan daiteke; adibidez, Zer uste duzu dela faxismoa? Bestetik, ondorengo formulak ere ager daitezke: Ba al dakizu ...?, Ezagutzen al duzu ...?, Noizbait entzun al duzu ...?, etab. Inkesta banaka erantzun beharko lukete eta irakasleak hura jaso. Hala ere, ikasleek euren artean eztabaidatzea eta debatitzea planteaturiko galdera edo kontzeptuen artean garrantzitsua suerta daiteke. Modu honetan, ideia eta iritzi ezberdinak aldera ditzakete.

Bestalde, hasierako galdetegia eta debatea baliabide interesgarriak izan daitezke ikastaldea ondo kudeatzeko. Erantzunen arabera ikasleak talde heterogeneoetan banantzea ahalbidetuko luke (gaiarekiko heldutasuna, parte hartzearen arabera, etab). Aldi berean, taldeko eztabaidaren bitartez, gaur egun fenomeno hori gerta daitekeen ala ez adieraziko litzateke euren usteak ikusi ahal izateko. Honen bidez, ikerketan oraindik murgildu gabe egoterakoan euren ustea eta ideiak ezagutu genitzake eta ea testuinguru historikoa bezalako kontzeptuak barneratuak dituzten ala ez jakitea.

Aurre ezagutzaren ariketekin bukatu ondoren, bigarren pausuan ikerketa eta lan osoa zentratuko den galdera nagusiaren planteamendua adieraziko zaie. Hots, ekintza nagusia sortuko da. Hala ere, pausu honen barruan bi atal aurkitzen ditugu. Lehenengoan gaiaren aurkezpena etorriko litzateke proposamenaren planteamenduarekin. Proposamen honek ikasleekiko izaera motibagarria izan behar du. Hori dela eta, demagun ondorengo planteatzen diegula ikasleei: Amnistia Internazionalakoek ultra eskuinaren fenomenoaren inguruko txosten bat egiteko eskatu digute. Txosten hau izango da bukaeran sortu beharko duten idazlan hori (sintesiaren pausua hain zuzen ere).

Motibazioa sustatuko duen planteamendua adierazi ostean hipotesi edo eszenatoki nagusia planteatuko zaie. Gure kasuan planteamendu nagusia honakoa litzateke: “Zein faktorek izan zuten/dute garrantzia faxismoaren eta nazismoaren gorakada ulertzeko?”

Planteamendua adierazita, honen jarraian gaia azalduko zaie saio teoriko batzuekin. Saio teoriko horietan faxismoaren eta nazismoaren prozesua azalduko zaie. Azalpen horietan faxismoa nondik datorren, zein aktorek hartu zuten parte, garaiko figura historiko esanguratsuak (Churchill bezalakoak adibidez), etab azalduko zaie. Saio teoriko hauek kurrikuloak eskatzen duen atalarekin egongo litzateke erlazionatua modu argiago batean. Kasu honetan klase magistrala egingo genuke; hau da, irakasleak hurbilpena egingo lieke ikasleei.

Azalpen teorikoen ostean hirugarren pausua etorriko litzateke. Pausu hau oso garrantzitsua da bertan zentratzen baita ikasleen paper aktiboa. Pausu honetan izango da ikasleak ikerlariaren jarrera hartuko duenean. Iturri Historikoen analisisien bitartez gaia landu beharko dute. Aldi berean, irakasleak metodologia berria erakutsi beharko die ikasleek analisia ondo egin ahal izateko. Metodologiarekin batera, ikerketaren helburua argi utzi beharko zaie. Kasu honetan testu historikoen garapena, azalpenak sortzea, interpretazioak gauzatzea, deskripzioak ematea, analisiak egiteko gaitasuna eskuratzea, etab aurkituko lirateke helburu nagusien artean. Aldi berean, kausalitatea (zergatik), intentzionaltasuna (zertarako) eta erlatibismoa (denboran eta espazioan, testuinguruaren garrantziaz ohartarazteko) bezalako kontzeptuak barneratzeko balio lezake. Iturri Historikoen artean ondorengo lehen mailako iturri dokumentalak aurkituko genituzke: zorrotzak (hemeroteka, politikoa) zein audiobisualak (argazkiak).

Adierazi bezala, Iturri Historikoen analisia izango da elementurik esanguratsuena. Hemen ere hainbat atal edo pausu jarraituko dira lehenengo diskurtsoen analisia izango dela. Helaraziko zaizkien diskurtsoak banaka zein taldeka landu beharko dituzte. Banaka aztertzerakoan ideia nagusiak, faktore garrantzitsuenak edo informazio nagusia erauzi beharko dute. Taldeka jartzerakoan (hiruko taldeak konketuago) aldiz, banaka lantzerakoan eskuratuko ideia horien alderaketa edo debatea egingo lukete. Honetaz gain, aipatu behar da garaiko diskurtsoa (Churchillek faxismoa eta nazismoarekiko zein ideia zuen islatzen duen diskurtsoa) eta egungoa (prentsa artikulua/politikari diskurtsoa) egongo direla aztergaien artean. Epe ezberdinetako diskurtsoak aztertzerakoan testuingurua zenbateraino aldatu den,

interesak eta helburuak nola aldatu diren, ze argudio ematen dituzten diskurtso edo artikuluen horien egileak, etab barneratzea errazagoa litzateke. Konparaketa bat bi testuinguruen artean azken finean. Bestetik, adierazi behar da diskurtso hauek aztertzerakoan fitxa tekniko bat eskainiko zaiela informazio gehigarriarekin (data, lekua, pertsonaiak, nori zuzendua, etab).

Pausu honen barruan diskurtsoen analisisiaz gain iturri audiobisualen analisisa egongo litzateke. Argazkien analisiaren bitartez, garai bateko eta egungo konfliktibitatea alderatzea litzateke helburua. Langile masa mugimendu eta saiakera iraultzaile handiko epealdi bat (20. hamarkada) egungo langile mugimendu edo greba saiakera "ahulekin" alderatzea hain zuzen ere. Kasu honetan ere fitxa teknikoak helaraziko zaizkie informazio gehigarria izan dezaten. Aurrekoan bezala, banakako eta taldeko analisisa egongo litzateke. Sekuentziaren atalean sakonago azaltzen da aztertu beharrekoa.

Taldeka aztertzen edo eztabaidatzen hasten direnean ikasleei ere galdetuko zaie ea zer ikusten duten aldatu dela eszenatoki batetik bestera edo euren ustetan zer mantendu den antzeko. Diskurtsoen zein argazkien analisiak egin osteko taldeko eztabaidetan planteatuko litzaieken galderak lirateke.

Behin helarazitako iturriak aztertu eta debatitu dituztelarik, azken ariketa bat egongo da. Laugarren pausu honetan txosten bat lantzean datza. Txosten hau bigarren pausuan motibazio gisa planteatutako Amnistia Internazionalaren informea garatzea litzateke. Txosten honetan galdera nagusia berreskuratuko da ikasleek ikerketan zehar zer barneratu eta ikasi duten jakin ahal izateko. Ordurako iturri ezberdinak aztertuta izango dituztela kontuan hartuta eta aldaketa, jarraikortasun eta testuingurua ezberdinak direla barneratua edukiz gero, hura erantzuteko argudioak idatzi beharko dituzte. Helburua estruktura eta garapen egokiko idazlan bat sortzea da zeinetan aurreko ariketetan barneratutako prozesua plazaratu behar duten; hau da, ikuspuntu kritikoa eta ideia nagusiaren barneraketa. Azken batean, eszenatoki bateko eta besteko berezitasunak (denborazkotasuna, testuinguru historiko konkretua) ezberdindu dituztela adierazten jakin behar dute.

I. PROPOSAMENAREN HELBURUAK

Marko kurrikularrean eta ebaluazio irizpideen barnean, proposamen honekin gara daitezkeen hainbat helburu aipatu dira. Hala ere, horiek ez dira inondik eskura daitezkeen helburu bakarrak. Garrantzitsuenen artean honako hauek aurkituko lirateke:

- Ikerketa historikoa burutzea metodo historikoa ezagutzuz.
- Iturri historikoak ezagutzea eta erabiltzea.
- Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea.

- Ezagutza historikoaren ondorioak eskuratzea.
- Talde lana bultzatzea hein batean (hirunaka eztabaidatzerakoan).
- Lan autonomoa sustatzea.
- Ikuspuntu kritikoa garatzea

Ikus daitekeen bezala, iturri historikoen lanketarekin ikasleen parte hartzea, jarrera autonomoa eta euren kabuz pentsatzen eta ideia nagusiak erauzten ikastea lor daiteke. Baina helburu orokor edo oinarrizkoek gain, badira beste hainbat helburu ere. Konpetentzia orokorrak edo nagusiak barneratzeaz gabiltza hain zuzen ere. Guztira zazpi konpetentzia dira eta horietako zeintzuk sustatu daitezken ikusiko dugu. Konpetentzia horiek Komunikazio Linguistikoa; Konpetentzia Matematikoa, Oinarrizko Teknologian eta Zientzian; Konpetentzia Digitala; Ikasten Ikastea; Konpetentzia Sozial eta Zibikoak; Espiritu Ekintzailea eta Kontzientzia eta Adierazpen Kulturala dira. Horien artean honakoak susta daitezkeelakoan nago:

Komunikazio Linguistikoa: Komunikazio linguistikoa funtsezkoa da ahoz zein idatziz ondo espresatzeko. Garatu nahi diren ideiak eta analisiak modu egokian osatzeko gaitasuna litzateke. Iturri idatzien analisisian ideia nagusiak eskuratzeaz gain, proposamen honen barruan idazlan baten garapena aipatzen da. Idazlanaren estruktura egokia izan behar du bai forma zein edukiaren aldetik. Espresio linguistiko eta esaldien estruktura egokia ezinbestekoa da idazlana ondo egiteko. Modu honetan, helburu nagusia ez den arren konpetentzia garrantzitsu bat sustatzen da, gaitasun linguistikoa alegia.

Ikasten ikasi: Ikaskuntzarekin, ekimenarekin eta ikaskuntza antolatzeke ahalmenarekin lotutako gaitasuna da indibidualki nahiz taldeka egin daitekeela. Ikasleak dituen berezko ezaugarrien arabera izan daiteke; hots, ikasle bakoitzak nola gauzatzen duen bere ikasketa prozesua litzateke. Ikusi dugun bezala, iturriak aztertuz ikasketa autonomoa bultzatu daiteke zeinak aldi berean prozesu propioa garatzen laguntzen duen.

Konpetentzia Sozial eta Zibikoak: trebetasun pertsonalekin, interpertsonalekin eta kulturartekoarekin lotzen da gaitasun hau. Honetaz gain, ongizate pertsonala eta kolektiboa ere kontuan hartzen ditu egitura sozialak eta politikoak (demokrazia, justizia, berdintasuna, hiritartasuna eta eskubide zibilak) aintzat hartuz. Gure kasua aplikatuz, gizarteko aspektu garrantzitsuak lantzen direnez (politika, gizarte mugimenduak, etab) proposamenak egitura sozial eta ideia ezberdinak barneratzea lagundu dezake.

Espiritu Ekintzailea: Gaitasun hau ideien praktikotasunarekin, sormenarekin, berrikuntzarekin, arriskuen onarpenarekin, proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko trebetasunarekin lotzen da. Guri dagokigunean, berriro ere izaera autonomoaren

sustatzearekin lotuko genuke. Bakarka lan egiterakoan bakoitzak bere lan estiloa eta planifikazioa garatzen ditu. Honetaz gain, testuinguru konkretu batean kokatzerakoan eta iturriei galdera ezberdinak egiterakoan sormena garatzen dela esan daiteke. Kasu hipotetikoak imajinatzerakoan sormena sustatzen da.

Kontzientzia eta Adierazpen Kulturala: Gaitasun honek ideien, esperientzien eta emozioen adierazpen sortzailean ezartzen du garrantzia (musika, arte eszenikoak, literatura eta arte plastikoak). Kasu honetan, iturrien artean medio audiobisualak erabiliko direnez, emozioen adierazpenak barneratzea posible da; hau da, argazkien bitartez transmititzen diren eszenetan emozio ezberdinak suma daitezke. Diskurtsoek izan dezaketen karga ideologiko eta emozionalarengatik ere, emozioen adierazpenaren sortzaile izan daitezke konpetentzia honek adierazten duen bezala.

II. SEKUENTZIAZIOA

Goran adierazi bezala, proposamen lau pausotan garatuko da. Saio batzuk eduki teorikoa izango dute eta beste batzuetan ikasleen parte hartze aktiboa eskatuko da.

Guri dagokigun gaia, bai DBH 4 mailan zein 1go Batxilergoan, kurtsoko bigarren hiruhilabetekoaren barruan sartzen da biak ere 5. blokearen barruan aurkitzen baitira. Modu honetan, irakasleak ordurako ikasleen dinamika zein den hobeto barneratuagoa edukiko du beharrezko aldaketa, egokitzapen eta neurriak hartzea posible delarik.

4. mailako “gerra arteko epealdia (1919-1939)” blokea hainbat puntutan bananduta agertzen da. Lehenengo “Alemaniaren berreskurapen zaila” bezala azaltzen da. Gai honek Alemaniako nazismoaren igoeraren arrazoiak hobeto barneratzeko lagun dezake; hau da, 1919tik 1929ra bitarteko testuinguru historikoa azaltzeko egokia izan daiteke. “Alemaniaren berreskurapen zail horretan”, 1918-20 bitarteko langile mugimenduak eta saiakera iraultzaileak, Weimarreko errepublikaren lehen pausoak, ekonomiaren egoera zaila (hiperinflazioak), etab azal daiteke.

Lehenengo Batxilergoari dagokionean, “Gerra arteko epealdia, Bigarren Mundu Gerra eta ondorioak” blokea ere hainbat puntutan bananduta agertzen da. Bertan agertzen den lehenengo puntua “Ekonomia, gizartea eta garaiko kultura: 20. hamarkada” da. Puntu hau oso egokia suerta daiteke Italiako zein Alemaniako testuinguru historikoaren hurbilpena egiteko saio teorikoa landu behar denean.

Proposamenaren sekuentziarekin sartuz, lehenengo pausuan goran adierazitako galdetegia landu behar lukete. Nahiko laburra izango zen 3/4 galdera ingururekin. Inkesta honen helburua gaiarekiko duten aurre ezagutza jakitea litzateke. Aldi berean, errepresentazio edo kontzeptu ezberdinekiko duten ezagutza eskuratzeko baliabide ona izan daiteke.

Galdetegiarekin bukatu ondoren bigarren pausoari emango litzaioke hasiera. Pauso honek aldi berean hainbat atal ditu. Gaia aurkezterako orduan motibazioa pizteko proposamena adieraziko litzaieke; hau da, Amnistia Internazionalarentzako ultra eskuinari buruzko txostena garatu beharko dutela. Behin planteamendu hori adierazita, goran aipaturiko Alemaniako zein Italiako testuinguru historikoa azalduko litzaieke saio teorikoan.

3. pausotik aurrera lehen mailako iturriak aztertzea jo beharko dute. Iturri horien artean, Churchillen diskurtsoak aurkitzen dira zeinetan Mussolinirekiko eta Hitlerrekiko honek zuen begi eta irizpide ona nabari daitekeen. Aldi berean, Sobietar Batasunarekiko etsaitasun hori elementu garrantzitsu bezala ere sumatzen da diskurtso horietan (*“De aquí en adelante, ninguna gran nación estará desamparada de un medio fundamental de protección contra el crecimiento cancerígeno del bolchevismo”*, etab). Ideia hau oso garrantzitsua da eliteen papera ulertzeko eta beraz, faxismoaren papera garaiko gizartean. Hala ere, diskurtsoarekin batera zein urtetan, non eta zeinen aurrean eman ziren espezifikatuko da informazio gehigarria emanaz.

Helburua izango da ikasleek banaka diskurtso horiek aztertzea eta ondorioak eskuratzea euren kabuz. Adibidez: “Zergatik Churchill bezalako politikari garrantzitsu batek begi onez ikusten zituen Hitler, Mussolini eta euren mugimenduak bere etsaiak baldin baziren (Bigarren Mundu Gerran)?”, “Komunismoa agertzen da momenturo benetako etsaia bezala”, etab.

Beraz, ikasleek ondorioztatu behar dute Churchillek elite ekonomiko eta politiko handienen ideia islatzen duela. Elite horren boterea zenbaterainokoa den ulertzea iritsi behar dute nazismoa bezalako fenomeno bat boterera eramatera iritsiz.

Behin ikasleek emandako testuak aztertu eta ideia nagusiak banaka atera dituztelarik, hiru jarriko dira eta euren artean eztabaidatzen hasi. Eztabaidatzerakoan ideia nagusiak sendotu eta konfirmatu daitezke. Aldi berean, baten bati ideia bat pasa bazaio beste ikaskide batek lagun diezaioke. Ikasleek euren artean eztabaidatzerakoan ikuspuntu ezberdinak eta diskurtso ezberdinak egon daitezkeela ikus dezakete.

20/30. hamarkadetako iturriak aztertu eta ondorioak eskuratu ondoren gaur egungo prentsaren eta politikoen diskurtsoak, deklarazioak eta balorazioak helaraziko zaizkie. Hauek ere lehen mailako iturriak dira azken batean. Bigarren txanda honetako diskurtso eta artikuluak Frente Nazionala, Amanecer Dorado, eta antzeko alderdiengatik zer esaten duten aztertuko lukete. Hauek ere elitearen parte diren bezala, garai batetik bestera zenbateraino aldatu den ondoriozta dezakete (elitearen interesa eta lehentasuna azken batean). Modu honetan, lehenengo egoerarekin alderatzea posible da eliteak mugimendu hauekiko duen diskurtsoa guztiz ezberdina dela ondorioztatuz.

Iturri idatziak aztertu ondoren argazki batzuk eskainiko zaizkie iturri audiobisual gisa. Argazki horietan 20 eta 30. hamarkadetako langile mugimenduaren indarra sumatuko da. Langileen kontzentrazio handiak, greba orokorrak iraupen luzekoak, gatazka eta iraultza saiakerak,

etab ikusiko dira. Informazio guzti hau aipaturiko fitxa tekniko horien bitartez eskuratuko lukete. Modu horretan, argazkiek langile masa mobilizatu bat erakutsiko lukete. Ikaslea bizkor badabil ohartuko da aztertu berri dituen Churchill-en diskurtsoetan komunismoa edo boltxebikeak gelditzeko beharra sumatzen dela (agintarien aldetik azken batean). Diskurtsoetako elementuak identifikatu beharko dituzte azken batean irudi hauetan. Argazkien analisia ere hasiera batean banaka lantzeko ariketa izango da ideia nagusiak eskuratzeko (apuntatzeko). Horren ostean hiruak ezarriko dira ideiak eztabaidatzeko.

Argazkien bidez, garai hartan langileriaren aldetik iraultza edo konfrontazioa gerta zitekeela ondoriozta dezakete. Ikasleek aztertu beharko dute irudi horietan zer sumatzen den, zein den transmititu nahi den ideia nagusia.

Iturri idatziekin elitearen interesa eta papera ondorioztatzera iritsi baldin baitaitezke, argazkien bitartez garaiko langileriaren indarra eta iraultza batetarako "arriskua" posible zela ondorioztatzera iritsi daitezke. Faxismoaren arrakasta ulertzeko faktore garrantzitsua alegia.

Hala ere, azkeneko aztergaia egungo mugimendu edo greben irudiak izango liriteke. Egia da egun ere greba handiak ikus daitezkeela, baina hor dator grebaren iraupenaren informazioa. Gaur egun grebek orokorrean oso iraupen laburra izaten dute. Honek islatzen du aginteari egiten zaion presioa ez dela inondik ere garai baten bezala. Aginteari egiten zaion presioa txikia dela ondorioztatzen badute, egungo elite edo agintariak sistema arriskuan ez dagoela sumatuko dute. Modu honetan, berriro ere orainaldiaren eta lehenaldiaren arteko alderaketa egin dezakete testuinguru soziala guztiz ezberdina dela ondorioztatzera iritsiz. Argazkiak aztertzea diskurtsoak baino laburragoa izan daitekeenez, bi epealdietakoak saio berean gauzatzea da asmoa.

Azkenik, 4. pausuan berriro ere galdera nagusia formulatuko zaie: "Faxismoaren eta nazismoaren igoera ulertzeko faktoreak zeintzuk ziren kontuan hartuta, posible ahal da egungo ultra eskuinak boterea 20/30 hamarkadetan bezala eskuratzeko? Argudiatu zure erantzuna. Kasu honetan, eskuratu berri duten informazioarekin idazlan bat egin beharko dute. Idazlan hau hasieran planteaturiko Amnistia Internazionalaren txostena izango da azken batean. Ordurako ondorioztatuko dute, ala ez, egungo testuinguru historikoak ez duela zerikusirik garai batekoarekin eta alderaketa horiek horren kategorikoki egitea ezinezkoa dela. Batez ere elitearen papera eta langilearen edo gizartearen indarra izango dira aztertu beharreko aspektu garrantzitsuenak bai gaur, eta baita orduan ere.

III. EBALUAZIOA

Lanean zehar aipatu bezala, planteaturiko proposamen honetan iturrien analisia (ideia nagusien erauzketa) eta idatzizko lana izango dira aspektu garrantzitsuenak. Inkesta bat ere burutuko da ikasleen aurre ezagutzak aztertu ahal izateko, baino inkesta ez da ebaluaketan sartuko (irakaslearentzako baliagarria bakarrik). Honetaz gain, iturrien analisia bakarka

aztertu ostean hirunakako eztabaida edo ideien alderaketa egongo denez, eztabaida horretan parte hartzea kontuan hartuko da. Eztabaidatzen duten bitartean irakasleak oharrak hartuko ditu (jarrera aktiboa ala pasiboa, inplikazioa, motibazioa, argudio konplexuen erabilera, etab).

Sekuentziaren atalean adierazi bezala, dagokigun gaia bigarren hiruhilabetekoaren barruan sartuko litzateke bai DBH zein Batxilergoan. Izatez, bosgarren blokea bientzako baliagarria denez, bigarren hiruhilabetekoaren erdian kokatuko litzateke. Proposamen honek ez du inondik ere hiruhilabeteko osoa hartuko. Eduki konkretu batean txertatzen da eta ondorioz, gainontzeko unitateetan ebaluatutakoarekin osatuko da.

Proposamenari dagokionean, iturrien analisia eta eztabaida eta idazlanaren osaketa hartuko dira kontuan. Iturrien analisia ondo gauzatzea beharrezkoa da azkeneko ariketa burutu ahal izateko, baina notaren pisu handiena idazlanak izango du. Iturrien analisia eta ideien erauzketak %40a balioko du eta idazlanak berriz falta den %60a. Idazlanari pisu gehiago eskaintzen zaio bertan demostratu behar baita aztertu berri diren iturrietako ideiak, kontzeptuak, prozesuak, etab benetan ulertu eta barneratu dira. Bestetik, idazlanak egitura egokia eta hizkuntza jaso izatea ere kontuan hartuko da. Nola ez, argudioen antolamendua idazlanaren funtsezko atala da.

Hala ere, iturrien analisia nahitaezkoa da ondorioak eskuratu ahal izateko. Atal honek bi zati dituenek, bakarkakoa eta taldekoa, bakoitzari portzentaje propioak emango zaizkio. Aipaturiko %40 horretatik, %35a ideien erauzketa eta bakarkako analisia izango litzateke eta gelditzen den %5a taldeko antolatutako eztabaidek osatuko lukete. Analiaren atalean ideia nagusiak eta informazio garrantzitsuena erazi behar dutenez, paper batean jaso beharko dute ondorenean irakasleak jasoko duena. Ebaluaketa ondo egin ahal izateko, errubrikak erabiliko dira bai analisiari zein idazlari dagokionean. Ebaluaketa errubrikak amaierako eranskinetan agertzen dira.

4) ONDORIOAK

Behin baino gehiagotan errepikatu dudana bezala, lan honetan zehar planteatutako proposamen didaktikoa ez da praktikara eraman kasu hipotetiko bati buruz gabiltzala. Hori dela eta, ez dago inolako datuen emaitza edo analisisirik. Hala ere, bertan planteatzen den metodologia eta proposamen didaktikoa etorkizunean aplikatu ahal izateko baliagarria zian daitekeelakoan nago.

Hezkuntza modelo tradizionalarekin hausteko metodo bat genuke bertan planteatzen dena; konkretuki Iturri Historikoen analisia. Ikaslearen jarrera eta rol aktiboa sustatu nahi da bera bilakatzen delarik bere ikaskuntza prozesuaren protagonista pixkanaka arazo eta oztopo ezberdinak gailentzeko asmoarekin. Irakaslea ez da izango modelo tradizionalan bezala edukiak bere horretan transmititzen dituen; baizik eta laguntzaile edo gidari gisa jardungo

duena. Ikaslea ikertzailea bilakatzen da eta historia gertukoagoa den elementua bilaka daiteke. Lehen mailako iturriak euren kabuz aztertzerakoan motibazioa areagotu daiteke eta aldi berean pentsamendu kritiko eta historikoa garatu.

Honetaz gain, aukeraturiko gaia ikasleen motibazioa handitzeko baliagarria izan daitekeelakoan iruditzen zait. Egun nahiko entzuna den edo pil-pilean dagoen gai bat izaterakoan, ikasleari gertukoagoa edo errazagoa suerta dakiokkeen aztertzeko elementua izan daiteke ultra eskuinaren fenomenoa. Aldi berean, egungo errealitatea hobeto ulertzeko baliagarria izan daiteke. Fenomeno honi buruz egiten den nahitaezko erabilera gizarteko sektore batzuen eskutik, errealitatea edo gertakari historiko batzuk desitxuratu dezakete. Diskurtso ofizial hauek gizartean oso erraz sar daitezke eta hezkuntzak zein historialariek argudio edo fundamenturik gabeko diskurtso eta baieztapen huts horiek benetako datu, informazio eta iturri fidagarriekin erantzun behar dute. Pentsamendu kritikoa sustatu behar da eta historikoki pentsatzen irakatsi. Oinarrizko kontzeptu historikoak barneratzean, garaian kokatzeko aukera eskaintzen digu historialari gisa eta errealitate bat bestetik ezberdintzen eta bereizten lagundu; testuinguru historikoaren berezitasunak kontuan izatea alegia.

Beraz, proposamen honekin hainbat elementu landu daitezkeela esan daiteke. Laburbilduz, ikaslearentzako abantailen artean honakoak aurkituko lirateke: jarrera autonomoagoa, rol aktiboa, ikasketa prozesu propioa (euren arazo eta zailtasunak zeintzuk diren ikustea), motibazio berezia, iturri historikoekiko hurbilpena, ikuspuntu kritikoaren sustapena, debatitzeko eta eztabaidatzeko aukera, etab. Hezkuntzaren aldetik, metodologia berritzailea izan daiteke orain arteko dinamika tradizionalarekin apur dezakeena zentzu txiki batean behintzat. Historiako ikasgai ikasleen aldetik gaizki ikusienetarikoa da. Hori dela eta, metodo honen bitartez ikasgaia atseginagoa eta entretenigarriagoa izan daitekeelakoan nago. Enpatia, garaian kokatzea, testuinguruaren berezitasunak barneratzea, eta abarrez gain, ikasleen parte hartzea eskatzen denez euren iritzia kontuan hartzen da. Ikasleek euren ustea eta pertzepzioa transmititzea elementu oso positiboak dira historiaren ikaskuntza prozesuan onuragarriak izan daitezkeenak.

Hezkuntzak jada ez du instituzio zurrun bat izan behar (metodo tradizionala, jarrera pasiboa, diskurtso itxia, etab), baizik eta ikaslearen parte hartzea eta motibazioa sustatzen lagundu behar du eta mota honetako ariketak eta metodologia horretarako baliagarria izan daiteke.

5) ERANSKINAK

1) PAUSOEN ANTOLAKUNTZA:

1. PAUSOA	Sarrera eta Aurre ezagutza eskuratzeko inkesta
2. PAUSOA	Gaiaren aurkezpena : proposamen motibatzailea
	Saio teorikoak
3. PAUSOA	Iturri idatzien analisisa bakarka: Churchill diskurtsoak
	Taldeka eztabaidatu
	Egungo prentsaren/diskurtsoen analisisa bakarka
	Taldeka eztabaidatu
	Iturri audiobisualen analisisa bakarka: Gizarte mobilizazioen argazkiak (20/30 hamarkada)
	Taldeka eztabaidatu
	Iturri audiobisualen analisisa bakarka: Gizarte mobilizazioen argazkiak (gaur egungoak)
	Taldeka eztabaidatu
4. PAUSOA	Idazlanaren/Txostenaren garapena

2) ERRUBRIKAK:

Iturrien analisiaren ebaluazio errubrika honakoa litzateke:

	4-BIKAIN	3-ONGI	2-NAHIKO	1-GUTXI
Ideia nagusiak adieraztea	Ideia nagusiak modu egokian eskuratzeko gai izan da	Ideia nagusiak eskuratzeko gai izan da	Ideia nagusi gutxi eskuratzeko gai izan da	Ez du ideia nagusirik eskuratu
Hipotesiak planteatzea	Hipotesiak modu egokian planteatzeko gai izan da	Hipotesi bat baino gehiago planteatzeko gai izan da	Hipotesiren bat adierazteko gai izan da	Ez du hipotesirik planteatu
Lan kolaboratiboa edo eztabaida	Parte hartze aktiboa izan du gainontzeko ikaskideekin ideiak alderatu dituelarik	Parte hartze altua izan du gainontzeko ikaskideekin ideiak konpartitu dituelarik	Parte hartze txikia izan du gainontzeko ikaskideekin gutxi eztabaidatuz	Ez du parte hartzerik izan edo jarrera pasiboa erakutsi du

Idazlanaren/txostenaren ebaluazio errubrika honakoa litzateke:

	4-BIKAIN	3-ONGI	2-NAHIKO	1-GUTXI
Argudioak ematea	Argudioak modu egokian adierazteko gai izan da	Argudioak emateko gai izan da	Argudioaren bat emateko gai izan da	Ez du argudiorik eman
Hipotesiak planteatzea	Hipotesiak modu egokian planteatzeko gai izan da	Hipotesi bat baino gehiago planteatzeko gai izan da	Hipotesiren bat adierazteko gai izan da	Ez du hipotesirik planteatu
Ikuspuntu kritikoa	Ikuspuntu kritikoa eta pertsonala modu egokian emateko gai izan da	Ikuspuntu kritikoa eta pertsonala emateko gai izan da	Ez du ikuspuntu kritikoa eta pertsonala modu egokian landu	Ez du ikuspuntu kritikorik ez pertsonalanik adierazi
Egitura eta hizkuntza	Idazlanaren egitura egokia da eta hizkuntza jasoa erabili du	Idazlanaren egitura egokia da eta hizkuntza egokia erabili du	Idazlanaren egitura ona da eta hizkuntza onargarria erabili du	Idazlanaren egitura desegokia da eta hizkuntza desegokia erabili du

3) CHURCHILLEN DISKURTSOEN ZATIAK:

Hablando en Roma el 20 de enero de 1927:

"No puedo sino estar encantado, como muchas otras personas lo han estado, por el comportamiento sencillo y amable del señor Mussolini y por su calma, por su aplomo e imparcialidad, a pesar de las muchas cargas y peligros que soporta. En segundo lugar, cualquiera podría ver que él no pensaba en nada excepto en lo eterno del pueblo italiano, como él lo entendía, y que lo que menos le interesaba eran las consecuencias esto le pudiera acarrear. Si yo hubiera sido italiano, estoy seguro de que habría estado entusiasmado con usted desde el principio hasta el final, por su lucha triunfal contra los apetitos y pasiones bestiales del leninismo. Sin embargo, diré una palabra sobre un aspecto internacional del fascismo. Externamente, su movimiento ha prestado un servicio a todo el mundo. El gran temor que siempre ha rodeado a todo líder democrático o líder de la clase obrera ha sido el de ser minado por alguien más extremo que él. Italia ha demostrado que existe una forma de luchar contra las fuerzas subversivas, que puede aglutinar a la masa de la población, dirigirla adecuadamente, valorar y desear la defensa del honor y la estabilidad de la sociedad civilizada. De aquí en adelante, ninguna gran nación estará desamparada de un medio fundamental de protección contra el crecimiento cancerígeno del bolchevismo"

En la edición de 1939 de *Great Contemporaries*, Winston Churchill escribía lo siguiente sobre la llegada de Hitler al poder:

"La historia de esa lucha no se puede considerar sin admiración por el coraje, la perseverancia, la fuerza vital que le permitió desafiar, retar, conciliar o superar todos los obstáculos y resistencias que se presentaron en su camino... Siempre he dicho que si Gran Bretaña fuera derrotada en la guerra, espero que encontremos un Hitler que nos devuelva a nuestra posición correcta entre las naciones". (El mismo libro de Churchill contiene un ataque venenoso contra Trotsky, que se ganó su odio implacable por ser el creador del Ejército Rojo y uno de los dirigentes de la Revolución de Octubre).

4) FITXA TEKNIKOAK:

-Iturri mota:

-Data:

-Lekua/Tokia:

-Egilea:

-Nori zuzendua:

-Pertsonaiak:

BIBLIOGRAFIA

- ELEY, G. (2002) "Un mundo que ganar", *Crítica*, Barcelona.
- GISEVIUS, H. (1996) "Adolf Hitler", *Plaza & Janes S.A*, Barcelona.
- KERSHAW, I. (1998) "Hitler 1889-1936: Hubris", *The Penguin Press*
- MACK SMITH, D. (1981) "Mussolini", *Fondo de Cultura Económica*, México.
- RODRIGUEZ JIMENEZ, J. (1998) "¿Nuevos Fascismos? Extrema derecha y neofascismo en Europa y Estados Unidos", *Ediciones Península*, Barcelona.
- PAGÉS. J y SANTISTEBAN. A (1999) "Cambios y Continuidades: Aprender la temporalidad histórica"
- SANTISTEBAN, A. (2010) "La formación en competencias de pensamiento histórico" *LATINDEX*, UAB.
- TRIBÓ TRAVERIA, G. (2005) "Enseñar a pensar históricamente. Los archivos y las fuentes documentales en la enseñanza de la Historia", *Horsori editorial*, Universitat de Barcelona.

PRENTSA DIGITALA

- http://www.berria.eus/albisteak/114352/errefuxiatuak_hartzera_derrigortuta_daud_ela_gogorarazi_die_nbek_estatuei.htm
- <http://www.deia.com/2017/03/03/mundo/la-ue-sancionara-a-los-paises-que-no-acojan-a-su-cuota-de-refugiados>
- <http://www.efe.com/efe/america/portada/acnur-el-70-de-refugiados-sirios-en-libano-viven-bajo-umbral-la-pobreza/20000064-2894085>
- http://www.huffingtonpost.es/manuel-florentin/el-voto-obrero-de-marine-le-pen_a_22043307/
- http://internacional.elpais.com/internacional/2016/04/03/actualidad/1459718006_987997.html

- http://www.lainformacion.com/mundo/europeos-quieren-referendum-permanencia-UE_0_915208622.html
- http://www.lainformacion.com/no-nos-moveran/fascista-Pablo-Iglesias-apunta-maneras_0_964704964.html
- <http://www.lavanguardia.com/internacional/20170510/422427102594/valls-muerte-partido-socialista-francia.html>
- <http://www.periodistadigital.com/politica/partidos-politicos/2015/07/10/jose-antonio-primo-de-rivera-pablo-iglesias-falange-espanola-jons-podemos.shtml>
- <http://www.publico.es/internacional/europa-levanta-siete-vallas-mayor.html>

WEB GUNEAK

- https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_parlamentarias_de_Alemania_de_diciembre_de_1924
- https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_parlamentarias_de_Alemania_de_1928
- https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_parlamentarias_de_Grecia_de_enero_de_2015
- https://es.wikipedia.org/wiki/Partido_de_la_Libertad_de_Austria
- https://es.wikipedia.org/wiki/Partido_de_la_Independencia_del_Reino_Unido
- https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_legislativas_de_Hungr%C3%ADa_de_2014
- https://es.wikipedia.org/wiki/Movimiento_por_una_Hungr%C3%ADa_Mejor
- https://es.wikipedia.org/wiki/Elecciones_generales_de_los_Pa%C3%ADses_Bajos_de_2017
- https://es.wikipedia.org/wiki/Partido_por_la_Libertad